

"Bertsoa da abiapuntua, baina ikuskizun hibrido bat da 'eRRe'"

Otsailaren 5ean estreinatuko dute 'eRRe' ikuskizuna, San Agustinen; Leire Vargas durangarra da egileetariko bat • 24



"Nire bertsiorik onena berreskuratu eta berriro jokatzeko kapaz naizela sentitu gura dut"

Kirola • Peru Nolaskoain futbolariak Amorebieta taldeagaz jokatu du denboraldia amaitu arte, Athleticek utzita. Urte eta erdian zelaietatik urrundu zuen orkatilako lesiotik bueltan, apurka erritmoa hartzea eta taldeari mailari eusten laguntzea ditu helburu. • 26



"Makroetxaldeek eredu ustiaketa da eta lurrak igarri egiten du hori"



Okelaren kontsumo eta ekoizpen ereduak ezta-baidaren plaza publikora irten du. Alberto Garzón Kontsumo ministroak auzitan ipini du makroetxaldeek ekoizpen eredu intentsiboa, eta eredu jasangarriago baterantz jo beharko litzatekeela iradoki du, okelaren kontsumoa gutxituta. Durangaldeko abeltzain eta harakin txikiek eredu jasangarriaren alde egin dute. Adibidez, Saioa Mantzizidor abeltzain zornotzarrak. Ustiategi handien aurrean, okela ekoizteko modu jasangarria defendatu du. • 2-3

Itzuliko etapak

Mallabia behetik gora zeharkatuko du, %18ra arteko aldatsekin

Mallabia • Apirilaren 8an, Mallabiak gizonen Itzuliko etapa amaiera bat hartuko du. Txirrindulariek behetik gora zeharkatuko dute herria eta San Pedro ermita parean egongo da helmuga. Herriguneko bide osoa aldats gora da. • 6

DHEO DURANGO

Hizkuntza Eskola Ofiziala Escuela Oficial de Idiomas

2022ko matrikula librea ZABALIK

On-line

Urtarrilaren 24tik otsailaren 11ko 13:00etara arte.

36,18€

www.eoidurangoehe.zezuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45



Okela haztegi industrialak, ika-mikaren txingar artean

OKELA • EKAITZ HERRERA

Iazko abenduaren 26an isiotu zen txingarra, eta ordutik honako asteetan berotuz joan da brasa. Alberto Garzón Espainiako Kontsumo ministroak okelaren ekoizpen industrialari buruzko adierazpenak egin zituen Erresuma Batuko *The Guardian* egunkariari eskainitako elkarrizketan. Besteak beste, honako kontzeptu hauek plazaratu zituen. Bat: abeltzaintza industrialean lan egiten duten makroetxaldeak ez dira jasangarriak ingurumenaren ikuspegitik. Bi: abereei tratu txarra eskaintzen zaie. Hiru: makroetxaldeetan kalitate baxuagoko okela ekoizten da. Eta lau: ingurumenaren mesedetan okela gutxiago jaten hasi beharko genuke. Adierazpenek eztabaida sortu dute iritziz publikoan,

eta zalaparta bateko zein besteko alderdi politikoen artean. Urek nahastuta jarraituko dutela ematen du, aldi baterako bai behintzat, Madrildik heltzen diren berrien arabera, Espainiako kongresua oke-

Greenpeace talde ekologistaren esanetan, 15.000 litro ur behar dira kilo bat okela ekoizteko

la ustiategi industrialak erregulatzeko dekretu bat diseinatu guran dabil eta.

Eztanda mediatiko honen zipritzinak Durangaldera ere ailegatu dira, eta gure abeltzainak, harakinak eta kontsumitzaileak

gaiari begira daude orain. Unzalu Salterain abadiñarra EHNE sindikatuko Bizkaiko ordezkaria da. Bere esanetan, sortu den eztabaida "beharrezkoa" da, urte askoan egon delako "gordeta". Alde horretatik, Salterainek azpimarratu du EHNE sindikatua "gutziz bat" datorrela Garzón ministroak esanikoekin: "Uste dugu etorkizuneko hausnarketa eta erabakiek bide horretatik etorri behar dutela. Ekoizpen eredu industrialak eta guk defendatzen duguna, ingurumenean eta jasangarritasunean oinarriturikoa, ez direlako bateragarriak".

Datuak mahai gainean

Oxfordeko Unibertsitateko ikerlari talde batek bateraezintasun hori aztertu zuen 2018an Science

aldizkari zientifikoan kalera-turiko txostenean. Ikerketaren arabera, elikaduraren sektorea eguratsera isurtzen diren berotegi efektuko gasen %25en atzean dago. Eta okelaren ekoizpena kopuru horren erdiaren erantzule da. Baina gehiago ere badago, beste erakunde batzuek ere agertu dute-eta euren kexa. Greenpeace talde ekologistaren esanetan, 15.000 litro ur behar dira kilo bat okela ekoizteko. Kilo

Elikadura sektorea eguratsera isurtzen diren berotegi-efektuko gasen %25en atzean dago

bat azenario ekoizteko, oster, 131 litro ur beharko lirateke. Azken finean, ikerketa eta datu horietatik eratortzen dira okela gutxiago jateko, berdura gehiago jateko eta tokiko produktuez elikatzeiko gonbiteak.

Eztabaida Madril aldetik ailegatu da, baina lanari etxetik ekitera deitu du Unzalu Salterainek, Euskal Herrian ere baditugulako halako ekoizpen industrialak. "Beharbada Nafarroako Caparrosoko herrikoa izango da ezagunena. Behi-esnari loturiko haztegia da hangoa, baina baditugu txerri eta hegazti ustiategi gehiago, Nafarroan horiek ere", dio Salterainek. 2016ko martxoan, antzera bateko beste ika-mika bat sortu zen hemen. Maule-Lextarreko hiltegian (Zuberoa) gertatu zen. L214 talde ekologistak ezkutuko kamerak ipini zituen hiltegian, eta hiltzera zihoazen abereei tratu txarra ematen zitzaieiela frogatu zuen. Hiltegia zarratuta egon zen hainbat astean eta okelaren kontsumoari buruzko eztabaidak berriro ere irten zuen plaza publikora.

Orain ere hori gertatu da. Erresuma Batuko egunkari bati esandakoek hautsak harrotu dituela gure plazan. Horregaitik, erreportaje honek eskualdeko okela ekoizle biren gogoetak jasotzen ditu: Juan Gallastegirena eta Saioa Mantzizidorrena.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Makroetxaldeek kalitate baxuko okela ekoizten dutela eta asko kutsatzen dutela dio Alberto Garzón ministroak.

Halantxik dela uste dut. Ganadu asko dagoen lekuan arazoa egoten da. Planetaren ikuspegitik, denak izan behar du bere oreka. Gu geu ere, gizakiok, soberan egon gaitezke, erdiak baino gehiago. Ganaduagaz berdin.

Zein desberdintasun dago makroetxaldeek eta abeltzain txikien artean?

Egundokoa. Gure ekoizpena txikia da. Orekatua eta abereak ondo hazten dituen. Makroetxaldeek, oster, sekulako etekina ateratu behar izaten dute. Egundoko instalazioak dituzte, egundoko inbertsioak. Eta horiei aurre egite-

Makroetxaldeek egundoko etekinak behar izaten dituzte. Zelan egiten duten hori? Abereak puztuta

ko, etekin handiak behar dituzte. Zelan egiten duten hori? Abereak puztuta. Hormonatuta, adibidez. Bestalde, txahal okela fama txarra hartzen dabil, aspaldidanik. Zergaitik? Medikuek txarto informatzen dutelako. Medikuek diote oilaskoa edo indioilarra jatea txahal okela jatea baino hobea dela. Baina nik medikuei esaten diedana da pazienteei galdetzeko, ea okela non erosten duten. Zeren

“Okelaren kontsumoa gutxitu? Akaso kontsumoa izango da, bere orokortasunean, gutxitu beharrekoa”

Juan Gallastegik bere abizenagaz izendaturiko harategi bi ditu eskualdean. Durangon bat eta Zaldibarren bestea. Saltzen duen txahal okela guztia bere familiako kideek hazitakoa da. Mallabiko baserrian eta haren inguruan dute ganadua



Juan Gallastegi Solana
Harakina
ZALDIBAR | 1966

erosketa denda txikiren batean egiten badute, orduan okela hori kalitatezkoa izango da. Baina erosten duten okela hori industrialak bada, hori beste kontu bat da. Gaur egun modu egokian hazitako eta kalitate handiko txahal okela gutxiago saltzen da, eta, oster, industrialak izan daitezkeen oilasko eta indioilar gehiago.

Jasangarritasunaren ikuspegitik, okela gutxiago jan beharko genukeela dio Garzón.

Okelaren kontsumoa gutxitu? Beharbada, kontsumoa izango da gutxitu beharko litzatekeena. Kontsumoa orokorrean. Telefono mugikorrena, autoena, arropena... **Dendari txikiak jo-puntuak sentitzen zarete?**

Ez dut halakorik sentitzen, dendar txikiak gara-eta geure buruan sinesten ez dugun lehenengoak. Komertzioetako kide askok etsaierenean egiten dituzte erosketak. Azalera handiko supermerkatuetan edo Amazonen. Ez diogu elkarri erosten. Beraz, guk geuk guran sinisten ez badugu, zelan gurako dugu bezeroek guran

sinestea? Erruaren zati handi bat dugu. Eta gizarteak ere bai. Maiztaren Leheneko manifestazioa amaitutakoan, denok gara ezkerreko, denok gara *la letxe*. Baina gutariko zeinek ez dio Amazoni erosi? Nori eta gurean tributatu ere egiten ez duen horri. Ustelduta gaude. Gurago dugu Amazoni eman, ondoan bizi denari baino.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Saioa Mantzizidor Zillonizek (Zornotza, 1980) bederatzi urte daramatza txahalak hazten eta okela saltzen. Hortik bizi da. Dudagoitia auzoko Billene baserria du bizileku eta lantoki. Han gobernatzen ditu txahalak, gero okela salmenta zuzenaren bitartez saltzeko. Makroetxaldeek darabilten eredu industrialaren aurrean, Mantzizidorrek argi du berea oso bestelakoa dela. Lana, inplikazioa, mimoa, kalitate goreneko okela eta ingurumenarekiko jasangarria den eredu lantzen duela defendatu du.

Alberto Garzón Kontsumo ministroak zalantzan ipini du makroetxaldeen eredu. Ados zaude?

Bai. Mimoagaz lan egiten duen familia edo abeltzain batek 10-20-30 behi hazi ditzake. Baina hori barik ehunka edo milaka txahal dituenak ez ditu berdin maneiatuko. Eskulan hori galdu egiten da. Makroetxaldeek erosi egiten dituzte txahalak, ez dute behirik. Eta guk, oster, denak ditugu, behiak eta behi horien txahalak. Oso bestelako planteamendua da. 30 behi ditugu, 40 hektareatan hedatuta. Hartu-eman zuzena duzu abereekin, ekoizleagaz. Eta horrek beste balio batzuk izatea dakar.

Guk egindako inbertsioak 30-40 urtera begirakoak dira; makroetxaldeek, berriz, 5-10 urtean lortu gura dituzte etekinak

Horrek guztiak zelan eragiten du okelaren kalitatean?

Onerako eragiten duela iruditzen zait. Adibide bat ipintzearen, txahalak nik neuk eramaten ditut hiltegiara. Hau da, ez dut kamioi bat ez dakit zenbat txahalegaz hiltegiara bidaltzen. Animalien ongizateari dagozkion kriterioak kontuan hartzen ditugu. Normalean, hogeitaz bakoitza gutxiago pasatu behar dira txahala landatik lekualdatzen denetik hil arte. Modu horretan, aberea erlaxatuago egoten da, eta horrek okela xamurragoa lortzea ahalbidetzen du, abereak, hiltzen den momentuan, tentsio gutxiago izaten duelako. Baina txahala erlaxatu barik hiltzen baduzu, okela hori gogorra izango da. Eta hori zaintzea ezinezkoa da makroetxaldeek kasuan. Kamioiak arrapaladan joan daitezke batetik bestera. Guk sekula ere ez ditugu txahal bi hiltegiara batera eraman. Hobe da egun batean bat eta hurrengoan bestea eramatea. Buruhaustea da, baina gurago dugu horrela egin, aberearen ongizatea zaintzeko.

“Makroetxaldeek ereduak naturaren zikloa apurtzen du; gurea desberdina da”

Saioa Mantzizidorren berbetan, okelaren ekoizpena eta kontsumoa era iraunkorrean egin behar dira, industrialean barik

Eztabaidara irten duen beste puntu bat ingurumenagaz lotuta dago. Abeltzain txikiak zaretenon ereduak zelan laguntzen dio jasangarritasunari?

Sasiz beteriko landak ikusten ditudanean, ernegua sentitzen dut, pena moduko bat. Neure buruari galdetzen diot ea zelan ez dituzten garbitzen edo erabiltzen. Zelan ez dituzten mantentze-lanak egiten. Guk erabiltzen ditugun landak ez dira gureak. Herrira bizitzera joandako baserritarrek utzitakoak dira. Guk erabiltzen ditugu, landan garbiketa lanak eta mantentze-lanak egitearen truke. Eta iruditzen zait horregaz guztiagaz gure eskualdeari, gure herriei, paisaia polit bat ematen diegula. Lan pilo bat egiten dugu landak garbi mantentzeko. Ahuntzak ere badiugu sasia jan dezaten. Horretarako hasi ginen ahuntzekin lanean, garbiketa eta mantentze-lanetan laguntzeko.

Elkarte ekologistek diote okelaren kontsumoa gutxitzeak mesede egin diezaiokeela planetaren jasangarritasunari.

Eta itsasoan ba al dago nahikoa arrain? Munduko biztanleria hainbeste hazi da, okelaren kontsumoa arrainera bideratzen badugu itsasoak ere ez lukeela jasango. Ez dut uste arazoa hor dagoenik. Nik uste dut arazoa ekoizpen eredu dela. Guk egindako inbertsioak 30-40 urtetara begirakoak dira. Makroetxaldeek, oster, 5-10 urtean lortu gura dituzte etekinak. 4, 5, 6, edo 10 urte leku batean egiten dituzte. Gero, aktibitatea amaitutakoan, lurrak deskontaminatu eta badoaz beste norabait eredu horregaz jarrai-

Landak animaliekin garbituta, uste dut paisaia politago bat ematen diegula gure herriei eta eskualdeari

tzeko. Horrek naturaren zikloa apurtzea dakar. Eta hor dago, nire ustez, desberdintasuna, euren ustiaketa eredu dela, eta lurrak igarri egiten duela hori. Gurea beste kontu bat da.

Zenbatekoa da abeltzainaren lanak eskatzen duen inplikazioa?

Familia enpresa izatea inplikazioa da. Aurrekoan, adibidez, lagunekin afaltzetik nentorrela, 22:30 aldera edo, behi bat erditzeaz zegoela ikusi genuen.



Saioa Mantzizidor Zilloniz

Abeltzaina

ZORNOTZA | 1980

Jantzi lanerako arropa eta beharrera. Gurea taberna baten edo denda baten parekoa da. Ez da zortzi orduz lan egin eta kitto. Negozioak etenbako arreta behar du, baina gero igartzen da tratuan, produktuan. Nik balio handia ematen diot denda batera sartu eta Zer moduz, Saioa? galdetzen didaten aldiro. Betiko jende hori da, ezaguna, beste hartu-eman bat. Gertutasuna eskertzeko modu bat.

Zelan eragin dizue argindarraren eta elikagaien prezioen gorakadak? Horixe da niri gehien kostatzen zaidana. Bezeroari eskatu

beharreko prezioa igo behar hori. Jarduera honetan daramatzadan bederatzi urte hauetan,

Makroetxaldeak dira prezioa markatzen dutenak. Gehiago saltzen dute eta prezio merkeagoan

birritan baino ez ditut prezioak igo. Izan ere, asko kostatzen zait. Nire irabazi-marjinak jaitsi egin dira, eta bien bitartean

pentsuaren prezioak gora egin duela ikusi dut, eta argiarenak ere berdin. Bestalde, makroetxaldeak dira prezioa markatzen dutenak. Gehiago saltzen dute eta prezio merkeagoan. Irabazi-tarteak handitzen dituzte, eta horrek modu zuzenean eragiten digu. Azken finean, instituzioetatik ailegatzen zaigun laguntzari eskerrak egiten dugu aurrera. Horiek barik ezingo genuke aurrera egin, Baina nik beste zeozer gura nuke. Prezio duin bat gura dut bezeroarentzat. Eta soldata duin bat niretzat.



2020ko Karabana Solidarioa.



Iaz Saharako errefuxiatuen kanpalekura bidalitako Karabana Solidarioa.

Río de Oro elkarteak otsailaren 1ean ekingo dio sahararren aldeko Karabana Solidarioari

Elkarteak dirua batuko du, gero jakiak erosi eta produktuak Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko. Kanpainak otsailaren 1etik 13ra iraungo du. Río de Orok "hil edo biziko kanpaina" dela esan du eta dohaintzak egitera deitu ditu herritarrak

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Río de Oro Gobernuz Kanpoko Erakundeak otsailaren 1ean hasiko du aurtengo Karabana Solidarioa. Osasun larrialdia dela eta, elkar-teko kideak ez dira eskualdeko supermerkatuetara joango elikagai dohaintzak jasotzera. Horren truke, herritarren diru ekarpenak jasoko dituzte Bizum zein banku-transferentzien bitartez. Elkartek

azaldu du baturiko diru guztiagaz elikagaiak erosiko dituztela, gero Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko.

Hiru ekarpen mota

Río de Orok hiru dohaintza kopuru ezarri ditu: 4, 8 edo 12 eurokoak. Banku transferentzia bat eginda parte hartu gura duenak Laboral Kutxako kontu korrante

honetan sartu beharko du dirua: ES90-3035-0129-11-1290034483. Bestalde, Bizum sistemaren bidez lagundu gura duenak zabalik du horretarako aukera. Erabilzaileak Bizum aplikazioan sartu beharko du, eta Río de Oro Durangaldea kontua bilatu. Behin identifikatuta, 01955 kodea sartuta egin ahal izango du diru ekarpena.

Elkartearen esanetan, aurtengoa "hil edo biziko kanpaina" izango da. Izan ere, 2020ko azaroan gerra giroa berpiztu zen Marokoren eta Fronte Polisarioaren artean. Río de Orok dio sahararren egoera "larriagotu" egin dela ordutik hona. Hain zuzen ere, horregaitik deitu dituzte Durangaldeko herritarrak kanpainen parte hartzera, "laguntza humanitarioa beharri-zana duten horiei helaraztera". Elkarreak herritarren "ekarpen ororen balioa azpimarratu" du, "kilo bat arroz edo lekalek duten balio

itzela, alegia. Izan ere, dohaintzan emandako kilo bat jaki hori baino askoz gehiago da; kilo bat esperantzaz da, kilo bat elkartasun, kilo bat anaitasun eta kilo bat kemen 45 urte errefuxiatuta daramatzan

Río de Oro: "Guztion artean lortuko dugu trailerra 24 tona laguntza humanitarioz betetzea"

saharar herriarentzat", azaldu du elkarteak. "Guztion artean lortuko dugu trailerra 24 tona laguntza humanitarioz betetzea", gaineratu dute. Ekarpen ekonomikoa egiteko epea otsailaren 13an amaituko da.

Babes-aldamioa ipini dute San Agustingo ospitale zaharrear, teilak behera jaustea saihesteko

Udal teknikariek egindako ebaluazioaren arabera, estalkiaren egoera arriskutsua da. Durangoko Udalak babes egitura ipini du fatxadan, eraikina txarto dagoela eta

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak babes egitura bat ipini du San Agustingo ospitale zaharraren perimetroan. Bulego Teknikoak egindako azterketaren arabera, eraikina txarto dago eta estalkiak sortu du kezketariko bat. Euriteen eta haizeteen ondorioz, gainaldeko teilariak mugitu egiten dira, eta babes-itxitura bat ipintzea erabaki dute teilari horiek behera jausi ez daitezen. Datorren

astean, argi-foku batzuk ipiniko
dituzte, aldamioak kaleko farola bi
estali ditu eta.

Ez da udalak San Agustingo ospitale zaharrean esku hartzen duen lehenengo aldia. 2019an, legegintzaldia hasi berritan, gobernu taldeak eraikina apuntalatu behar izan zuen.

Akordioaren parte

San Agustino ospitale zaharra

trenbidearen orubeari loturiko akordiorako oinarriaren parte da, Pinondo Etxeagaz batera. Bertan, zaugarritasun egoeran dauden herritarrentzat bizilekuak atontzea aurreikusi dute. Durango-ko Udalaren berbetan, ospitale zaharra birgaitzeko aurrekontua 5 milioi eurokoa da, eta akordioaren oinarriaren arabera, inbertsio hori Jaurilaritzak hartuko du bere gain.



San Agustingo ospitale zaharra, fatxadan segurtasun-aldamioa ipinita duela.

anboto 

**Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558**

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko urtarilaren 28a
20. urtea - 879. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta
 Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba
 Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi,
 Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

 PEFC ziurtagiria
Produktu hau
kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birzikilatua
da eta Baso Kudeaketa
Iraultzaeraren
ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-30-00225



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Mancisidor erloju eta bitxi-dendak irabazi du Durangoko erakusleihen lehenengo lehiaketa

1.500 euroko saria eskuratu dute 'Intxaur-hauskailua' ipuinean oinarrituriko erakusleihoagaitik. Mi Casa denda eta Bekoa lora-denda bigarren eta hirugarren geratu dira hurrenez hurren. Astigarraga harategiak eraman du aipamen bereziaren saria

DURANGO • A.M./E.H.

Mancisidor erloju eta bitxi-dendak irabazi du Durangoko I. Erakusleiho Lehiaketa. 1.500 euroko saria irabazi dute. Mi Casa denda irabazi du bigarren saria (1.000 euro), eta Bekoa lorategiak hirugarrena (500 euro). Bestalde, Astigarraga harategiari aipamen bereziaren saria eman diote, "Durangoko historia eta sinboloak ondoen nabarmentzearen". Errekonoizimendu horregaitik 300 euroko saria eskuratu du harategiak.

Guztira, hogei izan dira erakusleihen lehiaketan parte hartu duten establezimenduak. "Lehiaketa honen helburua tokiko negozioen balioa nabarmentzea izan da, beste ekimen txiki eta handi batzuekin egiten dugun modura. Durangoko Udaletik gure herriko negozio txikiei laguntzeko ekimenak bultzatzen jarraituko dugu", azaldu dute Iker Urkiza eta Neskutz Rodriguez zinegotziek.

Durangoko Udalak Gabonen bueltan antolatu zuen erakusleihen lehiaketa. Egitasmoa udal gobernu taldeak eta EAJk adostu zuten, 2021eko aurrekontuak elkarregaz onartu zituztenean.

Durangoko Alde Zaharrean dagoen Mancisidor erloju eta bitxi-dendak *intxaur-hauskailua* ipuinean inspiratuta dekoratu zuen Gabonetako erakusleihoa. Uda amaieran ekin zioten lanari.

Maite Mancisidor arduradunaren berbetan, dendari guztiek egiten dute erakusleihoak apaintzeko ahalegina. "Ahalegin horri esker, herria askoz ere politago dago, erakargarriago", dio.



Udal ordezkariak Mancisidor bitxi-dendako arduradunekin.

Garaiko Udalak herriko lursail bat ipini du salgai Milikua aldean

GARAI • EKAITZ HERRERA

Familiaren bati bizitzeko aukera emateko asmoz, Garaiko Udalak Milikua aldeko lursail bat ipini du salmentan. Udalak argitu du bere eskumenekoak diren arlo bi dituela inguru horretan, eta eurentariko bat salgai ipintzea erabaki duela. Lursailak 3.552 metro karratuko azalera du eta 437 metro karratuko gehienezko eraikigarritasuna. Arloaren gutxienezko prezioa 82.387 euroan ezarri dute.

Interesdunek otsailaren 28ko 15:00ak arte izango dute eskaintzak aurkezteko epea. Udalak jakinarazi du eskaintza horiek bitarteko elektronikoen bitartez aurkeztu beharko direla. Edozelan ere, interesdunen batek xehetasun gehiago eskatu edo zalantzak argitu gura balitu, Garaiko udaletxera bertaratzeko aukera ere zabalik du. Udalak gaineratu duenez, "Garain ez dago eraikigarriak diren lursailen aukera handirik".

Herrigunea behetik gora zeharkatu eta gero, gizonen Itzuliko Mallabiko etapa San Pedro ermitaren parean amaituko da

Txirrindulariak Elizalde Plazatik eta Roke Deunaren eta Kalbario kaleetatik igaroko dira apirilaren 8ko etapan, %18ra arteko aldatsei aurre eginez



Iazko aldian ere San Pedro ingurutik igaro ziren txirrindulariak, baina aurten helmuga egongo da bertan.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO
Apirilaren 8an, Mallabiak lehenengo hartuko du gizonen Itzuliko etapa amaiera bat. Ibilbideari erreparatuta, azken metroak ikusgarriak izan daitezke. Herria behetik gora zeharkatu eta San Pedro ermita parean helmugaratuko dira ziklistak.

Amaiera 17:00 ingururako aurreikusita dago. Txirrindulariak Ermutik etorriko dira. Herri sarrerako bidegurutzean, Areitiorantz hartuko dute eta Elizalde Plazatik sartuko dira herri barrura. Handik helmugarainoko 500 metroak aldats gora dira. Eliza ondotik Roke

Deunaren kalea igoko dute lehenengo, eta kultur etxearen ondotik Kalbario kalea ondoren, San Pedro ermitaraino heldu arte. Txirrindulariek Kalbario kalean aurkituko dituzte igoerako aldatsik gogorrenak: %18ra artekoak, hain zuzen ere, udalekoen kalkuluen arabera.

Etapari loturiko azpiegiturak ermitaren alde banatara dauden baserrietarako bideetan kokatuko dituzte. Podiuma jubilatuen tabernaren aurreko aparkalekuan ipiniko dute. Horrela, herriaren erdialdean egingo dute irabazleei dagokien sari banaketa.

Herriguneko bide zatia etapako beharrianetara egokituko dute. Esaterako, Kalbario kalean dauden piboteak kendu egingo dituzte, eta arrapala bat ipiniko dute espaloia eta biderako maila parekatzeko. Etapa amaierak trafikoan eragingo du. Ermita ondoko baserrietarako sarrera-irteera itxita egongo da goizetik. Beste toki askotarako sarrerak etapa Mallabira hurreratu ahala itxiko dituzte. Maiatzaren erdialdean, emakumeen Itzuliko etapa bat ere Mallabian hasi eta amaituko da, baina oraindino ez dago erabakita herri barruko ibilbidea zein izango den. Udalak 30.000 euro inbertituko ditu etapa biak Mallabira ekartzeko. Antotzaileekin adosturiko kopurura heltzeko falta dena herriko enpresen ekarpenekin lortuko dute. Igor Agirre alkateak (EAJ) lasterketak eskaini dezakeen ikuskizuna baloratu du. "Nazioarteko txirrindularirik onenak herrian ikusteko aukera izango dute herritarrek, eta Mallabia herriaren izena lau haizetara zabaltzeko aukera ere eskainiko du lasterketak", esan du. EH Bilduko Aitor Loiolak ere balorazio "positiboa" egin du. "Herria kanpoan ezagutaraziko da, eta, gainera, Mallabian txirrindularitzarako afizio handia dago", esan du.

Bisita gidatuak antolatu dituzte Otxandioko plazako indusketetara

Otsaileko lehenengo hiru domeketan izango dira eta alde zaurretik eman behar da izena

OTXANDIO • J.D.
Otxandioko plaza eraberritzeko hirugarren eta azken faseari ekin aurretik, indusketak egin dituzte zoruaren azpian antzinako zer arrasto dagoen aztertzeko eta dokumentatzeko. Orain, han aurkitutakoaren berri emateko, bisita gidatuak antolatu dituzte otsaileko lehenengo hiru domeketarako: hilaren 6rako, 13rako eta 20rako. Belen Bengoetxea EHUKo irakasle eta indusketako zuzendaria izango da gidaria. Bisita-txanda bakoitzean gehienez 25 pertsona egongo dira eta parte hartzeko alde zaurretik izena eman behar da otxandio.eus helbide elektronikora idatzita edo 945 45 00 20 telefono zenbakira deituta.



Otxandioko plazako indusketa lanen irudia.

'Bohemian Rhapsody' filma eskainiko dute Mañarian guraso elkarteak antolatuta

MAÑARIA • J.D.
Mañariko guraso elkarteak zinema eskaintzarekin jarraitzen du. Oraingo honetan 'Bohemian Rhapsody' filmaren emanaldia aurreikusita dute domekan 17:00etarako, Mañariko liburutegi zaharrean. Parte hartzeko izena-ematen dutenaren arabera erabakiko dute azkenean emanaldia antolatu ala ez. **Oskarretako filma** 'Bohemian Rhapsody' filmak Queen musika taldearen eta Freddie Mercury abeslariaren bizitza kontatzen du. Mercuryren azalean jarri zen Rami Malek-ek aktore onenaren saria irabazi zuen 2019ko Oskar sarietan. Filma beste hiru sailetan ere izendatu zuten Oskar sarietara.

Ur-hoditeriara lotu dute bizikletak konpontzeko gune berria Izurtzan

IZURTZA • J.D.
Izurtzako aparkalekuaren ondoan dagoen bizikletak konpontzeko gunea ur-hoditeriara lotzen aritu dira aste honetan. Gunean, bihurkinak eta konponketarako bestelako gailu batzuk ere ipini dituzte. Horixe **Bihurkinak eta bestelako tresneria ere gehitu dizkiote aparkaleku ondoko azpiegitura berriari** zen azpiegitura berria martxan ipintzeko egin beharreko azken lana. Bizkaiko Aldundiak ipinitako gune horren helburua mendi bizikletan dabilatzane konponketa txikiak egiteko aukera ematea da.



Gremioen gida

Iturgintza



UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza



Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Zurgintza



ATERPE AROZTEK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!





Udalak bere jabetzako edozein eraikin eskaini dio Aldundiari.

Elorrioko Udalak eguneko zentro bat zabaltzeko eskatu dio Aldundiari

Elorrioko Pentsiodunen Taldeak mozio bat aurkeztu zuen eta onartu egin zuten osoko bilkuran

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak bat egin zuen pentsiodunen elkarteak joan zen asteko osoko bilkuran egindako eskaeragaz. Pentsiodunek mozio bat aurkeztu zuten eguneko zentro bat zabaltzea eskatzeko. Mozioagaz batera, aurrez jasoriko 1.155 sinadura ere aurkeztu zituzten. Mozioa EH Bilduren eta Podemosen aldeko botoekin onartu zuten. EAJ abstenitu egin zen.

Mozioa onartzeaz gainera, Elorrioko Udalak udal-titulartasuneko edozein eraikin eskaini dio Bizkaiko Foru Aldundiari. "Gure iritziz,

sinadura kopuru handi hori aurkezteak indartu egiten du udala egiten dabilen lana Elorriok eguneko zentroa izan dezan. Udalak eskertu egiten du herritar talde horrek egindako lana", adierazi du Idoia Buruaga alkateak ohar baten bitartez.

Eskaera hau historikoa da Elorrion. Udalak prentsa ohar bidez gogorarazi duenez, gobernu taldeak eguneko zentro bat ahalbidetzeko lan egin zuen 2015-2019 legegintzaldian, eta birritan bildu zen orduko Gizarte Ekintzako diputatuagaz. "Jaso genuen erantzuna ezezkoa izan zen", azaldu

dute gobernu taldeak. Bestalde, 2021ean, Elorrioko Udalak bilera eskatu zuen Gizarte Ekintzako diputatuagaz, eta, bilera horretan, Elorriok eguneko zentro bat izatea "behar legitimoa" zela jakinarazi zioten diputatuari. "Udalak ez duenez ez eskumenik ez gaitasun ekonomikorik hori egiteko, udal-titulartasuneko edozein eraikin eskaini genion Aldundiari. Baina ezezkoa eman ziguten berriro, zerbitzua Durangon bermatzen dela eta eskainitako 80 plazetatik erdiak baino ez daudela argudiatuta", azaldu du gobernu taldeak.

Sarrimendiko txistulariaren irudia ostu dutela salatu dute

Azken hamarkadotan Sarrimendiko tontorrean egon den txistulariaren irudia eskualdeko txistularien ikurra zen

BERRIZ • A.M./M.Z.

604 metro dituen Berrizko Sarrimendi mendiaren tontorrean txistulari baten irudia egon da azken hamarkadotan. Irudi hori Josu Maortua zaldibartarrak egin zuen Alejandro Aldekoa txistulari berriztarra gogoratzeko eta Eskola Kirola omentzeko asmoz. 1990ean ipini zuten txistulariaren irudia han, eta harrezkero eskualdeko txistularien ikurra izan da Sarrimendikoa. Horren adibide da Juan Antonio Aroma txistulariak

Josu Maortua zaldibartarrak egin zuen irudia, Alejandro Aldekoa txistularia gogoratzeko

kaleraturiko 1956-2015 Txistu Hotsak Durangaldean liburuaren azaleko irudia.

Bada, joan zen asteburuan, norbaitek Sarrimendiko txistulariaren irudia ostu zuela salatu zuten. "Joan zen astean" egin ei zuten lapurreta.



Sarrimendiko tontorrean zegoen irudiari eusten zion oinarria.

Ertzaintza "ingurumen delitu posible bat" ikertzen dabil Elorrioko Zumelegi erreka uretan

Ertzaintzaren patruila batek eta URAko Isurketa Zerbitzuak AHTaren lanetako 3. sektorean kokatu dute gertakariaren jatorria

ELORRIO • A.M./M.Z.

Elorrioko Udalak, ohar baten bitartez, "Abiadura Handiko Trenaren lanek Zumelegi erreka inguruetan sorturiko isuri" baten berri eman zuen joan zen barikuan. Oharraren arabera, Ertzaintzaren patruila batek eta URAko Isurketa Zerbitzuak AHTaren lanetako 3. sektorean kokatu dute gertakariaren jatorria.

Udal zerbitzuek eguen goizean izan zuten gertakariaren berri. "Zumelegi errekan, Nizeto Urkizuko zubiaren parean, ur uher grisaxka eta trinkoa bajatzen zen", dio oharrak. Udal iturrien arabera, isuria Atxondoraino heltzen da. "Oraingoz, Ertzaintzak argiketa bat zabaldu du ingurumen delitu posiblea dela eta, eta ibai ibilbidean arloan

eskumena duten organoak —URA eta Natura Ondarearen Zerbitzua— dagoeneko jakinaren gainean daude", azaldu dute.

Espedienteen jarraipenari buruzko informazioa eskatuko dutela azaldu du Elorrioko Udalak

Bestalde, gertakari horren aurrean, URAk, Natur Ondareak eta Ertzaintzak zabalduriko espedienteen jarraipenari buruzko informazioa eskatuko dutela jakinarazi zuten udal zerbitzuek. "Udalaren eskumenak aztertuko ditugu, dagokion salaketa egiteko", esan dute.



Isuria Zumelegi errekan.

Atxondoko Udala "pozik" eukaliptoaren hedapena gelditzeko luzamenduagaz

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bizkaiko Foru Aldundia eukalipto lurraldean hedatzea geldiarazteko luzamendua izapidetzen hasi da. Hori horrela, Bizkaian eukaliptoaren landaketa 2025eko abenduraren 31ra arte mugatuko da. Atxondoko Udala "pozik" agertu da erabaki horregaz, herrian egiten diren landaketak arautuko direlako eta aurrera begira eukalipto sartzeari debekatu egingo delako.

Atxondoko Udalak ohar baten bitartez jakinarazi duenez, xedapen hau indarrean sartu aurretik onarturiko eukaliptodun baso-berritzeak baino ez dira onartuko foru-izapidetzearen arabera, edo une hori baino lehenago izapidetzen ari zirenak eta azkenean onartu direnak.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Traumatologia

 **VÍCTOR MIGUEL**
CIRUJANO ORTOPÉDICO

Traumatologoa
Bizkarrezurrean espezialista
Traumatologia orokorra

Intxaurren Kalea, 19
Durango 48200
Tel.: 946 202 020

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheak -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

Optometria
PSE: 162/13

 **Naia Zabala Azumendi**
11587 kol. zk.



keinu

- Optometria teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboak • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoportometriazentroa.com

Podologia
PSE: 148/13

 **PAUSOZ PAUSO**
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, beheak 48200 durango

Fisioterapia
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin
betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Fisioterapia
PSE: 119/13

 **Zaindus**

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
beheak eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

"Sagardoa normaltasunez kontsumitzera eta sagardotegira lasaitasun osoz etortzera animatzen ditut herritarrek"

Bizkaiko sagardogileek denboraldi berria estreinatu dute 100.000 litro sagardo kupeleratuta. Aurtengo sagardoa arina eta alkohol graduazio gutxikoa da

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Jose Antonio Zamalloa Garamendi (Zornotza, 1958) Zornotzako Uxarte sagardotegiko arduraduna eta Bikaiko sagardogileen elkarteko presidentea da.

Zelako sagardoa da aurtengoa?

Denerik dugu. Orokorrean, sagardo arinak dira, nahiz eta badauden sakonagoak eta mingotsagoak ere. Aurreko urtekoen aldean, graduazio alkoholiko gutxiago dute. Guk Uxarten 40.000 litro ekoitzi ditugu. Erabilitako sagarren %90 etxeokoa izan dira.

Pozik zaudete uztagaz?

Bai, uztagaz bai. Baina kezka osasun egoeragaz dugu, etorriko denagaz. Sagardoagaz konforme gaude. Daukan itxura kontuan hartuta, ez du zertan eboluzio txarra izan. Baina salmentak jausten badira eta sagardotegiko aktibitatea jausten bazaigu, dena ikututa geratuko da. **Zelakoa izan da pandemian zehar egin-dako bidea?**

Oso txarra. Pandemiak 2020ko denboraldiaren erdian harrapatu gintuen, bete-betean. Birritan izan dugu sagardotegia zarratuta. Txotxa ezin da zuzenean kupeletik egin, murrizketak daude eta jendeak panikoa dio espazio itxietan sartzeari. Mila zalantza dago. Dena konpontzen bada, ondo. Jendea etortzen bada eta sagardotegiko giroaz gozatzen badu, bada, primeran. Baina hori ez dago ziurtatuta.

Hilaren amaierara arte egongo dira, gutxienez, osasun neurriak indarrean.

Ez naiz fidatzen. Aurreikuspenak egiteko gaitasuna dutenek eta kontu honi buruz asko ulertzen dutenek ez dute asmatu orain arte. Bai, berrikusiko dituzte neurriak, baina behin-betikoak izango dira? Ez dago gauza ziurrik.

Bizkaiko ekoizleek %10etik 20ra bitartean igo behar izan dituzue prezioak.

Beste sektore batzuetan egondako igoerek hori egitea inposatu digute. Kristalak, kartoiak, okelak



Jose Antonio Zamalloa Uxarte baserriko aurrealdean, sagar-arbolez inguratuta.

"Sagardoaren uztagaz pozik gaude, baina kezka osasun egoeragaz dugu, etorriko denagaz"

eta halakoek igoera izan dutenez, gu ere behartuta gaude igotzera. Galdu, behintzat, ezin dugu galdu. Argindarragaz hasi zen dena, baina sektore guztiek jarraitu diote bide horri.

Zein mezu bidaliko zenuke bezeroak animatzeko?

Sagardoa normaltasunez kontsumitzera eta sagardotegira lasaitasun osoz etortzera animatzen dut jendea. Osasun protokoloak eskatzen dituen arau guztiak betetzen ditugu. Leku segurua da. Jendeak gozatu dezala sagardotegiaz.

Amalia Lopezek irabazi du Iurretako XIII. Enpresa Proiektuen Lehiaketa

IURRETA • A. BASAURI

Amalia Lopez Fernandezek irabazi du Iurretako XIII. Enpresa Proiektuen Lehiaketa. Lopezek fruta, barazkiak eta txarkuteria produktuak saltzeko denda zabaldu du Uralde kalean. Iurretako Udalak sariaren lehenengo zatia eman dio asteon, 6.000 euro.

Iurretako Enpresa Proiektuen Lehiaketak ekintzailatza sustatzea du helburu, eta bidea erraztea herrigunean negozio propioa sortuz lanean hasia erabakitzen dutenei. Iñaki Totorikaguena alkateak saria emateko ekitaldian

Iurretako Enpresa Proiektuen Lehiaketak ekintzailatza sustatzea du helburu

azaldu duenez, "negozio tradizionalari eustea eta hori berrizten joatea ere lortu gura dugu, bizi ditugun garai hauetan horren garrantzitsua den betiko kaleko denda horri eustea".



Amalia Lopez eta Iñaki Totorikaguena.

Zornotzako Garbigune mugikorra otsailaren 8ra arte egongo da erabilgarri

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Foru Aldundiak eta Zornotzako Udalak Garbigune mugikorra ipini dute Zubiondon. Etxola bat ipini dute, herritarrek etxean pilatutako askotariko hondakinak bertara eramanez ditzaten. Besteak beste honako hauek jasoko dituzte Garbigunean: etxetresna elektriko txikiak, sukaldeko tresneria, sukaldean erabilitako olioak, kableak, telefono mugikorrak, pinturak, tonerrak, kapsulak, eta pilak.

Egin zaitez Anbotoren lagun

Orain, %30 merkeago

* Errenta aitortenean kenkaria jaso gura baduzu, **bete formularioa** edo deitu 946 816 558

anboto



Epe muga: otsailak 17a

Astolako igerilekuen estalkia berriro lizitatzeak 410.000 euro garestituko du aurrekontua

Urtarrileko osoko bilkuran onartu dituzte igerilekuen estalkia berriro lizitatzeke pleguak; EH Bilduk aurka bozkatu du

ABADIÑO • A.M.

Astolako igerilekuen estalkira-ko obrak bigarreniz lizitatzeke pleguak onartu dituzte urtarileko osoko bilkuran, hilaren 26an. "Udalaren lehentasunezko proiektua da, baina konplexua, eta aurreikusi ezin genituen arazoak aurkitu ditugu. Azkar lan egin dugu bigarreniz lizitatzeke. Bigarren lizitazioak nabarmen handitu du aurrekontua", azaldu zuen Mikel Garaizabal Abadiño-

ko alkateak. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 1.906.569, 26 eurokoa izango da (BEZa aparte). Aurrekoagaz alderatuta, kontratu berriak "berrikuntzak" dakartzala azaldu zuen gobernu taldeak. "Nabardura berri batzuk daude kontratuan, baina kezkarria iruditzen zaigu udalak zerbitzu osoa azpikontratatu gura izatea", adierazi zuen EH Bilduko Mikel Urrutia zinegotziak ezezeko botoa argudiatzerakoan.



Astolako igerilekuak.

COVIDak Zaldibarko emakumeei zelan eragin dien aztertu gura dute

Zaldibarko Udalaren Berdintasun arloak proiektu bat martxan ipiniko du; otsailaren 3an egingo dute lehenengo batzarra



Zaldibar.

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Udaleko Berdintasun Sailak proiektu berri bat ipini gura du martxan. COVID-19aren agerpenak emakume zaldibartarren bizitzetan zelako eragina eduki duen aztertu gura dute udaletik, eta, horretarako, emakume zaldibartarrekin batu gura dute. "Helburua profil desberdinetako Zaldibarko emakumeak biltzea da, COVID-19ak euren bizitzan zelan eragin duen jakiteko, euren beharrianak identifikatzeko eta denon artean honi buruz hausnartzeko", azaldu dute ohar baten bitartez. Lehenengo batzarra otsailaren 3an izango da, 18:00etan, liburutegi zaharrean. Berdintasun Sailakoen esanetan, bertan zabalduko dituzte proiektuaren oinarriak. "Emakumeak proiektu honetan parte hartzera animatu gura ditugu", esan dute. Topaketaren antolakuntza errazteko asmoz, izena eman beharko da berdintasuna@zaldibar.eus helbide elektronikora idatzita, edota 94 682 7016 telefono zenbakira deituta.

Hondakindegia orain dela urte bi amildu zela gogoratuko dute

Ekitaldia egingo dute Eitzagan, otsailaren 6an, 13:00etan

ZALDIBAR • A.M.

Datorren astean urte bi beteko dira Zaldibarko hondakindegia amildu zenetik. Zaldibar Argitu plataformak ekitaldia antolatu du tragedia gogoratzeko. Zaldibarko zaborteia 2020ko otsailaren 6an amildu zen, eta ingu-

rumen hondamendia eragiteaz gainera, bi langile hil ziren bertan: Alberto Sololuze eta Joaquín Beltran. Iazko abenduan Verter Recycling enpresako arduradunek Durangoko epaitegian deklaratzekoak ziren, ingurumen delituen auzian.



Mobilizazio baten irudia Durangoko Epaitegiaren aurrean.

Durangaldean gremioekin,
zerikusia duen negozioirik baduzu,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

Eskola kirola bueltan da gaurtik aurrera, Eusko Jaurlaritzak baimendu eta gero

Entrenamenduak baimenduta egon diren arren, lehiaketak debekatuta egon dira



Gaurtik aurrera, lehiaketei berrekingo diete.

DURANGALDEA • A.M./M.Z

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak martitzenean iragarri zuenez, eskola kirola baimenduta egongo da urtarrilaren 28tik aurrera, gaurtik aurrera. Osasun, Kultura eta Hezkuntza Sailak ordezkariek bildu ziren eta orain arte egon diren mugak bertan behera uztea erabaki zuten, eta umeak eskola kiroleko lehiakete-tara bueltatzeari.

Orain arteko neurri hori urtarrilaren 4an sartu zen indarrean. Orduan erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak eskola kiroleko lehiaketak bertan behera uztea. Urtarrilaren 4tik hona, lehiaketarik egon ez den arren, eskola kiroleko entrenamenduak mantendu egin dituzte.

Politikan

Neskutz Rodriguez
Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Noiz arte?

Urtarrilaren 20an, Eusko Jaurlaritzaren aplikazioan Durango-ko airearen kalitatea txarra zela adierazten zuen (Bentzeno 8 mikrogramo). Egun berean, Eusko Jaurlaritzak aire kaliteari buruz berri eman zuen esanez datuek "ez dute erakusten aztertzen ari diren kutsatzaile posibleen ez-betetzerik, ezta balio anomorik ere". Halaber, gaineratu zuten: "neurketek 2020tik instalatutako unitate mugikorrean erregistratutakoak baino bentzeno-maila txikiagoak ematen dituzte". 2018an bentzenoaren neurketak 5 mikrogramotik beherakoak zirela esan ziguten; beraz, egoerak, hobetu beharrean, okerrera egin du.

Datu hauek irakurrita, "balio anomorik ez egoteak" Durango-ko aire kalitatea txarra dela esan nahi du? 2017an lehenengoz salatu genuenetik hona, sarritan izaten ditugu usain gogorak eta benzeno eta partikula toxikoen maila altuak (Iaz egun askotan benzeno maila 100 mikrogramo baino gorago-koa izan zen).

Partikula kutsakorren maila gora doa eta badirudi Eusko Jaurlaritzak ez dela honetaz arduratuko Ingurumen Sailak maiztze-ko bileran esan zigutena kontuan hartuta. Orduan esan ziguten ez dutela baliabiderik jarriko Durango-ko Udalaren azterketak lurretatik ekarritako bentzeno maila handien iturria bilatzeko (ia 800 mikrogramo erregistratu ziren).

Datuek ez dute gezurrik esaten. Baliabideak eta 2018ko urrian Eusko Legebiltzarrean onartutako puntuak betetzen ez badira, Durangon aire kaskarra izaten jarraituko dugu.

Noiz arte eutsi behar diogu Durangon eta Durangaldean aire kalitate txarra izateari?

Durangaldea asteen

Iñaki Reta preso elorriarra Euskal Herriratuko dutela iragarri dute

Elorrio | Espainiako Espetxe Erakundeek zazpi euskal preso Euskal Herriratuko dituela iragarri du; tartean, Iñaki Reta elorriarra. Eusko Jaurlaritzak erabakiko du zein espetxetara lekualdatuko duten Reta; Basaurira, Martutenera edo Zaballara mugituko dute. Asier Garcia, Imanol Miner, Lierni Armendariz, Bittor Franco, Gotzon Aranburu eta Xabier Zabalo dira Iñaki Retagaz batera Euskal Herriko espetxeetara ekarriko dituzten presoak.

Elorrioko udaltzaingoaren oposaketan izena emateko epea otsailaren 17ra arte

Elorrio | Deialdian egindako forma akats batzuk direla eta, udalak otsailaren 17ra arte luzatu du bost udaltzain plazetan izena emateko epea. Modu horretan, gaur egun hutsik dauden bost plazak, guztiak, beteko dituzte oposizio-lehiaketa bidez.

Durangaldeko Mankomunitateak otsailean berrekingo dio Adinekoen Zerbitzuari

Durangaldea | Durangaldeko Mankomunitateko Adinekoen Zerbitzuak otsailean berrekingo dio bere jarduerari, ikastaro, tailer, hitzaldi eta kultur bisitei. Mankomunitatetik jakinarazi dutenez, COVID-19aren aurrean indarrean dauden segurtasun neurriak bezte egingo dira. Eskaintza doakoa izango da baina beharrezkoa izango da izena ematea. Izen-ematea otsailaren 1a baino lehenago egin beharko da, 94 620 05 46 telefono zenbakira deituta edo *terceraedad.mdurango@bizkaia.org* helbidera idatzita.

Iritzia

Elorrioko Pentsionistak Taldeak urtarrilaren 20an aurkeztu zuen bertoko udalean, Aldapebeitia jauregian Eguneko Zentroa eraikitze-ko mozioa. Azaltzen diren argudioez gain herritarren aspaldiko eskaria ere bada, kontuan izanik orain dela bi edo hiru urte beste mozio bat aurkeztu zela gai honi buruz.

Elorrioren, 80 urtetik gorako 506 pertsona daude, 2020. urteko daten arabera. Eguneko Zentroa erdibidea da Zahar Egoitzaren eta Pertsona Autonomoaren artean. Horri esker, pertsona nagusiei ematen zaien laguntzaz eta elkar bizitzaz aparte, senitartekoei atsedean eta lasaitu handia eskaintzen zaie era berean. Horregatik da garrantzitsua Eguneko Zentroa herrian izatea. Pandemiak agerian utzi ditu adinekoei buruzko arretaren zulo beltza eta konponbidea emateko premia larria.

Udaleko osoko bilkuran mozioa onartu zen EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen baietzarekin eta EAJren abstentzioarekin. Jakin nahi genuke baita ere Elorrioren zenbat pertsona dauden laguntza behar dutenak bizitza autonomoa egin ahal izateko. Beraz, Bizkaiko Aldundiari eta bera kudeatzen duen EAJri eskaera egiten diegu, Elorriok premiazko duen Eguneko Zentroa martxan jar dezan. Jar dezagun gure nagusien zaintza eta bizitza lehen lerroan. Horren adierazle dira abenduaren 17an eta 18an herrian jaso genituen 1.150 sinadurak. Aldundiaren arabera aski da Durangoko Eguneko Zentroarekin, baina hori kriterio ekonomizista hutsa da eta ez premiazko eta oinarritzeko beharrei aurre egiteko. Begira bestela ingurura, Elgeta, Bergara, Arrasate, Eibar, Sorlu-zera. Horietan guztietan badago Eguneko Zentroa. Elorrioren zergatik ez? Alderdi guztien programan agertzen zen Eguneko Zentroa. Bada garaia Bizkaiko Aldundiak eskaera hori gauzatu dezan.

Oharra: Mendekotasuna duten pertsonak dituzuen familiak jarri gurekin kontaktuan nahi baduzue, astelehenero 12:00etan plazan gaituzue.

Elorrioko Pentsionistak Mugimendua

Jesus Aristegi, Aitor Larrañaga eta Fernando Larrañaga

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



clínicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muretatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak



946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



Idi probak. Abadiño'ko San Blas Saria 2022

Otsailak 3 -San Blas-Kintopekoak
18:00

Ur'ra Olabarrieta (Goierri)
Andraka Jatetxea (Lemoiz)
Artola (Oiartzun)

Otsailak 4
21:00

Iñaki Oliden (Orio)
Zornotza anaiak (Maruri-Jatabe)
Iñaki Lopategi (Billela-Birle)

Otsailak 5
21:00

Iñaki Lopategi (Billela-Birle)
Olazar (Lezo)
Rafa Alegria (Bermeo)

Otsailak 6
18:00

Benguria elkartea (Bermeo)
Bizkiak (Errezil)
Asador Iruña (Maruri-Jatabe)
Garcia'ren alabak (Gamiz-Fika)

Otsailak 7
17:00

Kamiño'ko jatetxea (Muruet'a)
Karpi (Maruri-Jatabe)
Jon La Cruz (Gatika)

Otsailak 7
22:00

Iñaki Oliden (Orio)
Benguria (Bermeo)
Juanjo Etxebarria (Gatika)



ARAUAK

1.	1.750 kiloko harria erabiliko da.
2.	Idi-buztarri bakotxaren oinarrizko pisua 1.140 kilo izango da, eta hortik gorako kilo bakotzeko kilo t'erdiko gainzama gehituko da. Idi-buztarri bakotzak akulari bi eroango ditu.
3.	Idiak goizeko 10etan pisatuko dira herriko baskulan, buztarri bakotxa bere saioaren egunean.
4.	Idi-buztarri bakotzak 30 minutuko saioa egingo dau, eta ustekabe edo ezbeharren bat gertatu ezker ' o hamar minutu gehiago emongo jakoz arazoa konpontzeko.
5.	Probak Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federazioak kontrolatuko ditu.
6.	Hamabi sari emongo dira, eta gutxienez 40 untze egin beharko dira sari bat jasotzeko. Sari ' ei indarrean dagoen lege ' gintzako zerga atxikipena ezarriko zaie.
7.	Gertatzen bada proba-saioa bertan behera itxi behar dala antolatzaileen esku ez dagoen arrazoiren bate ' gaitik, parte-hartzaileei kalte-ordain bat emongo jake eta txapelketa honetako azken sariaren pareko dieta bana.
8.	Izena emotea Udaletxean egingo da 2022ko urtarrila ' ren 23ko eguerdiko 12:00etan. Ondoren, saioak zozkatu dira. Krotalen zenbakiak eta mikrotxipak zozketa hasi aurretik aurkezten ez dituenak ezingo dau parte hartu zozketan. Idi-jabe bakotzak idi- pare bat baino ezingo dau aurkeztu.
9.	Abadiño ' ko Udalak eskua dauka partaideak onartzeko, loteak egiteko, eta saioen kopurua erabagiteko ikusirik zenbat probalari aurkezten diren. Goitik jota, 23 idi-buztarri onartuko dira.
10.	Doping frogak egiten direnean, ez da saririk emongo frogaren emaitza jakin arte. Baldin emaitza positiboa bada, saria kenduko jako idien jabeari, eta Abadiño ' ko Udalak neurri juridikoak hartuko ditu bere aurka. Halakoetan ez da saririk emongo.
11.	Hemen adierazitako baldintzez kanpo, idi-probetan erabiltzen diren usadioek ere arau indarra izango dabe. Edozelan be, txapelketako gorabehera guztiak argitu eta ebazterakoan, bertan parte hartzen dabien erakundeek izango dabe azken hitza.

SARIAK

1	1.850 €, garaikurra, txapela eta mantak
2	1.550 € eta garaikurra
3	1.300€ eta garaikurra
4	1.200€ eta garaikurra
5	1.100 € eta garaikurra
6	900 € eta garaikurra
7	800 €
8	750 €
9	700 €
10	650 €
11	600 €
12	575 €

13.etik aurrera 500€ko dietak ordainduko dira, 40 untze baino gehiago eginez gero.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxe: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com



Urtebeteko etenaldiaren ondoren, San Blas azoka baserritar eta abeltzainen erakusleihoa izango da berriro

Aurreko urteetan eskaintzen zituzten kultur ekitaldiak ez antolatzea erabaki du udalak; idi probak bai, antolatu dituzte

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Urtebeteko etenaldiaren ondoren, San Blas eguneko azoka egingo dute Abadiñon, otsailaren 3an. Hori bai, ez da ohiko azoka izango. Baserriko produktuen salerosketa eta ganaduen erakusketa, bai, egingo dute; baina ez da kultur programaziorik, kale animaziorik edo txosnarik egingo.

Lau gune

Azokak lau gune bereizi izango ditu. Ohikoa den moduan, gune nagusia trinkete inguruan egongo da. Bertan, baserriko produktuen salerosketarako gunea atonduko dute. 80 bat ekoizle batzea aurreikusitako dute. Bigarrena artisautza azoka izango da. Ferialekuaren



San Blas azokako artxibo irudia.

ondoko aparkalekuan ipiniko dute, 20 standekin. Hirugarrena ganadu eta abeltzaintza gunea izango da. Trinketearen atzealdean egongo

Azokak lau gune bereizi izango ditu. Urtero lez, gune nagusia trinkete inguruan egongo da

da, urtero lez. Eta, azkenik, baserri lanetarako makinaren gunea ipiniko dute, Gaztañodi parkearen bueltan. Errokillara, kordel eta San Blas opilei dagokienez, udalak azaldu du postu horiek egon egongo direla, baina kopuru mugatu batez.

Kultur ekitaldi eta txosnarik ez Udalak jakinarazi du ez dutela kultur programaziorik antolatuko eta ez dutela txosnarik baimenduko, "jende pilaketak saihesteko". Baina idi probak bai. %60ko edukiera mugagaz egingo dituzte. Bertara sartzeko, COVID ziurtagiria aurkeztu behar da. "2021ean azoka bertan behera uztea erabaki gatxa izan zen eta aurten ere gatxa izan da berriro egitea erabakitzea", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak. "Baina gure lehen sektorea babestu behar dugula uste dugu, une izugarri gogor eta konplikatuan. Horregaitik, indarrean dauden osasun neurriak zorrotz bete ditzatela eskatzen diegu herritarrei, abadiñarrentzat hain berezia den ekitaldi hau normaltasunez gauzatu ahal izan dezagun, segurtasuna milimetro bat ere deskuidatu barik", gaineratu du. Azkenik, musukoa erabiltzera eta segurtasun distantziak mantentzera deitu du udalak.

"San Blas azoka egun handia izaten da baserritarrontzat"

Jacinto Iturriagaetxebarria urte askoan eramandakoa da ganadua Abadiñoko azokara. Idi proben zalea ere bada



ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Jacinto Iturriagaetxebarriak ondo baino hobeto ezagutzen du Abadiñoko San Blas azoka. Abadiñarrak 35 urtean eramantzen dituzte abeltzainak azokara. Gazteluko baserrian mimo handiz zaintzen du ganadua. 1993an saria jaso zuen San Blas azokan. Leioako Azokara eramandako behiekin ere hainbat sari irabazi du. Iturriagaetxebarriaren behi bat Euskal Herriko ezagunenetakoa izatera heldu zen. Abadiñarrak munduko behirik handiena hazi zuen. 'Handi' izeneko behia ezaguna egin zen hedabideetan ia 1.500 kilo izateagatik.

Zelan bizi duzu San Blas eguna?

San Blas azoka egun handia izaten da baserritarrontzat. Azokara urte

askoan eramantzen izan dut ganadua. 35 urtetik gora eman ditut azokan parte hartzen.

Azoka bera zelan aldatu da urte hauetan?

Lehen, ganadua eskasagoa zen, txikiagoa. Jendeak ez zuen ganadua atenditzen gaur egun egiten den moduan. Orain ganadua askoz hobe da, dena aldatu da. Hori bai, lehen askoz gehiago saltzen zen azokan. Gu hasi ginenean, orain baino gehiago saltzen zen. Bestalde, baserritarren sektorea ez dago ondo. Zaharrok aurrera goaz eta gazteak honetan hastea kosta egiten da.

Ezagutu duzu San Blas eguneko erromeriarik?

Egun batean lau erromeria ikusita koa naiz. Baita hiru ere urte askoan.

19:00etarako, plaza bete-beterik egoten zen, jendeak goizaldera arte dantza egiten zuen.

Zu dantzazalea izanda, ekingo zenuen...

Bai, baina gaztea nintzenean, 14 urte inguru nituenerako, bajatuta zegoen.

San Blas azokara urte askoan eramantzen izan dut ganadua. 35 urtetik gora eman ditut azokan parte hartzen

Idi probek ere tradizioa dute Abadiñon. Gustuko dituzu?

Nire idiak Euskadiko eta estatuko txapelak izan dira. Neuk entrenatzen nituen. Afizio handia dut. Orain ez daukat sasoirik horretan ibiltzeko.

Zein desio duzu San Blas egunerako?

Eguraldi ona egin dezala, eta osasuntsu bagaude, ondo bagaude, hantxe izango gara. Etxeko ganadua goizean atenditu eta azokara joango naiz.



ABARKETERUENA

Iturritxo kalea, 6 · Txanporta plaza
48220 ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

San Blas egunean gurean:

Ogitartekoak
Hamarretakoak
Menuak
Pintxoak

Giro euskalduna eta atsegina egun osoan!

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Datorren egunean, otsailak 3, San Blas azoka egingo dute Abadiñon, ezohiko azoka. Izan ere, baserriko produktuen salerosketa eta gauduaren erakusketa baino ez dira egongo. Idoia Fradesek pozik hartu du erabakia. Abadiñarra orain 14 urte hasi zen ogia egiten, eta hamar urtetik gora dira San Blas egunez Abadiñon erakustokia ipintzen duela. Azoketan produktu ekologikoari lekua egitea oso garrantzitsua deritzo Fradesek.

San Blas eguna ezohikoa izango da aurten. Ez da kultur programaziorik, kale animaziorik eta txosnarik egongo.

Hala da, bai. Hala ere, jendea gogotsu dagoela uste dut, bai herritarrek bai ekoizleak. Azken urte bi hauek oso gogorak izan dira azoketan saltzen duten ekoizleentzat, eta esango nuke badagoela feriak berreskuratzeko premia, kalera irteteko beharrezana. Arduratsu eta osasun neurriak betez ospatuko dugu San Blas eguna. Ea zelan doan eguna eta zelan doazen salmentak.

Abadiñarra izanik, zelan bizi duzu San Blas eguna?

Lan handiko eguna izaten da, gustura egiten dudana den arren. Azoka amaitzean, erakustokia jaso eta lagunekin sortzen den jai giroaz disfrutatzea gustatzen zait.

Ogia bakarrik salduko duzu?

Ogia ez ezik, galletak, barazki-pastelak, bizkotxoak eta San Blas opilak ere salduko ditut. Ekologikoaren zigilupean sartuta ditut ore amagaz egindako ogia, galletak eta bizkotxoak. Barazki-pastela egiteko ere osagai ekologikoak erabiltzen ditut, baina ez dut ekologikoaren zigilupean sartu oraindik, tarteka egiten ditut eta. Hala ere, barazki-pastela ere zigilu horregaz saldu gura nuke. Ekologikoa eta, gainera, tokiko produktuekin egina. Inguruan proiektu politikak daude barazkiak modu ekologikoan ekoizteko, lan handia egiten dabilta kalitatezko produktua lortzeko.

Zelako plaza da Abadiñokoa?

San Blas azokak ospe handia du. Nekazaritza azoketan dabiltazenek oso ondo saltzen dute Abadiñon. Esan behar dut ni ez naizela azoka askotan ibiltzen, eta jendea ez dago

“San Blas eguna ezohikoa izango da aurten, baina jendea gogotsu dagoela uste dut”

Idoia Fradesek ore amagaz egindako ogia, galletak eta bizkotxoak egiten ditu Batana izenpean. Ekologikoaren zigilupean saltzen ditu bere produktuak, eta San Blas eguneko azokan erakustokia ipiniko du datorren egunenentzako Abadiñon



Idoia Frades Uberuaga

Ogi ekologikoa egiten du

ABADIÑO | 1973

ohituta ferietan nire produktuak ikustera. Baina orain arte gustura ibili naiz eta aurten ere salmenta onak izatea espero dut. Hamar urtetik gora daramat San Blas egunez

“Azken urte bi hauek oso gogorak izan dira, eta uste dut badagoela azokak berreskuratzeko premia”

ogia saltzen. Egun polita izaten da, jai giro polita sortzen da.

Zein ogik du arrakastarik gehien?

Zekale ogia asko saltzen da azkenaldian. Gariagazko intolerantzia dutenek hartzen dute, zekaleak glu-

ten baxutxoagoa du eta. Bestalde, espelta ogia ere oso ondo saldu da beti. Galletak ere ondo saltzen dira. **Geroago eta ogi gehiago dago merkatuan. Mokofinak gara ogi kontuetan?**

Kontsumitzaileak geroago eta interes handiagoa du jaten duenaren inguruan, eta geroago eta informazio gehiago du. Asko ogia etxean egiten hasi dira. Neurri batean, modan ipini da eta kontsumitzaile askok kalitatezko ogia bilatzen dute. Badakite zer den ore amagaz egindako ogia. Informazio gehiago dute interes bat badagoelako.

Gaur egun edozein tokitan topatu genezake ogia. Ogiaren esentzia galdu dela esango zenuke?

Orain hasi gara kontzientzia apur bat hartzen. Orain gutxira arte ez

genion geure buruari galdetzen zelako ogia gura genuen. Ore amagaz egindako ogia ez da gaurko kontua, gure aitita-amamek halantxik egiten zuten, baina nork izan du ore

“Kontsumitzaileak geroago eta interes handiagoa du jaten duenaren inguruan, eta informazio gehiago du”

ama ahotan orain dela gutxira arte? Erosten eta jaten dugunari buruzko informazioa izan beharko genuke. Ganoraz elikatuko nauen ogia den ala ez jakin beharko nuke. Behin hori jakinda norberarena da aukera.

Geroago eta gehiagok egiten dute ogia etxean. Jakin beharreko sekreturik badago?

Pazientzia, horixe da sekreturik handiena. Ogia egiteko prozesuak eskatzen dituen denborak errespetatu behar dira, eta mimo apur bat ipintzea. Edozer gauza arineketan eginez gero, denborak kontuan hartu barik, eragin zuzena izango du kalitatean. Baina, bai, oso ogi goxoa egin daiteke etxean ere. Oso plan polita da umeekin ogia etxean egitea.

Zu oso ogizalea zara?

Lotsa apur bat ematen dit esatea, baina, esaera zaharrak dinen lez, errementariaren etxean zotza buruntzi (barrez). Gustatzen zait ogi zatitxoren batez bazkaltzea, baina ogirik ez badut ere lasai asko bazkaldu dezaket.

**Hiper Eroski Abadiñon
erosteko modu berri bat**

**Ondo pasa
San Blas
jaietan!**


**EROSKI Abadiño
hipermerkatu**
Inoiz baino hurbilago







LOTU ITZAZU

Zein maskara da zeinena? Lotu maskara bakoitza dagokion superheroiagaz.




LABIRINTOA



KOMIKIA

Asmatu istorio bat eta marraztu ezazu laukitxoetan. Erabili bunbuiloak elkarrizketak idazteko.



BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIA
IKASTOLA



**Matrikulazio epea zabalik:
Urtarrilaren 17tik 28ra
bitarte**

Eman izena kurutziagaikastola.eus
atarian edo 946 200 822 telefono
zenbakira deituta.

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus





'Zeker'

MUSIKA **ELORRIO** :: Urtarrilak 29

Diskoaren aurkezpen emanaldia

Zeker talde elorriarrak etxean aurkeztuko du disko berria Elorrioko gaztetxean. Liher Larrañagaren, Paul Uri-goitiaren, Lander Amorrrorturen eta Pablo Garciaren abentura berri honek punk rocka eta melodia itsaskorrak ditu ardatz. Gaztetxeak 21:30ean zabalduko ditu ateak. Sarrera bost euro izango da.

Elorriarrekin batera, Wood Strings talde aretxabaletarak joko du kontzertuan. *Isladak* hirugarren lana aurkeztuko dute. Aurretik, Pantx Records zigiluko Etchevoy & Lardi bat musika jartzailleek girotuko dute gaztetxea. Kontzertuen ondoren, Kaka-limonek ipiniko du festarako musika.

Urtarrilaren 28an

ELORRIO antzerkia

'A.K.A. Also Known As' (Franávila Producciones konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA sari ematea

'Zaldai Mendi Erronka 2021'. Finalisten sari ematea, 19:00etan, Askondoko aterpean. Zaldaik antolatuturiko Mendi Astearen barruan.

IURRETA ipuinak

'De boca a oreja' (Légolas Colectivo Escenico), 19:00etan, Herri bibliotekan. Helduentzako ahoko narrazioa.

IURRETA ipuin kontalaria

'Pipi' (Peru Magdalena), 17:00etan, 3tik 5 urtera arteko umeentzat (heldu batek lagunduta), Ibarretxe kultur etxean. Sei urtetik gorako umeentzako saioa, 17:45ean. Aurretik izena eman behar da.

Urtarrilaren 29an

BERRIZ antzerkia

'Semea pixka bat motelago dabil soilik' (Ttanttaka), 19:00etan, Kultur Etxean.

BERRIZ ipuinak

'Bidaia liluragarria' (Antton eta Lorea), 12:15ean, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia

'¡Ese no!' (Banarte), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA mendi irteerak

'Basatzan' Iurretako IV. Bizikleta Martxa, 10:00etan, Askondoko aterpetik. www.kirolprobak.com webgunean (7euro) eman daiteke izena, edo egunean bertan (10 euro). Diru guztia Angelman Sindromearen elkartearentzat izango da. **Gallandara frontalekin**, 18:00etan. Umeekin egiteko moduko ibilbidea. Txikienak bidearen erdian batzeko aukera egongo da, Lukuarrietatik hasita. Zaldaik antolatuturiko Mendi Astearen barruan.

ZORNOTZA antzerkia

'A.K.A. Also Known As' (Franávila Producciones), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urtarrilaren 29ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa

'Zabalik' (Kandela Sormen Gunea), Zelaieta Zentroan. Zornotzako komertzioen historia erakusten duten argazkiak.

Urtarrilaren 30ean

DURANGO antzerkia

'A.K.A. Also Known As' (Franávila Producciones), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA ipuinak

Amaia Egidazu ipuin kontalaria, 12:00etan, Askondoko aterpean. Zaldaik antolatuturiko mendi astearen barruan.

MAÑARIA zinema

Zinema, 17:00etan, liburutegi zaharrea. 12 urtetik gorakoak.

Otsailaren 4an

BERRIZ antzerkia

'Aioka' (Zurrunka Teatro), 17:00etan, Kultur Etxean.

Otsailaren 5ean

DURANGO antzerkia

'eRRe. Aldarri bat bertsoz', 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Haizea Arana, Leire Vargas, Aner Euzkitze eta Oihana Arana, Edurne Azkarateren zuzendaritzapean.

ZALDIBAR musika

Worth It, 21:00etan, gaztetxean.

Otsailaren 10ean

ELORRIO irakurketa

Ingelesezkot irakurketa kluba, 19:45ean, liburutegian. Hile birik behin, eguenero, Paul Attardek dinamizatuta. Liburutegian eman daiteke izena, edo 946 032 032 telefono zenbakira deituta edo liburutegi@elorrio.eus posta elektronikora idatzita.

Otsailaren 11n

DURANGO ate irekiak

Batukandra, Durangoko Batukada Feministaren ate irekien saioa. Izena emateko, otsailaren 4a baino lehenago idatzi behar da honako helbide elektronikora: batukandra@gmail.com.

Otsailaren 20ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Mari Puri Herrerogaz berbetan. Museoko bildumako grabatuak' (Mari Puri Herrero), Arte eta Historia Museoa.

Otsailaren 25era bitartean

ELORRIO erakusketa

'Exodoa: Hondakinak aterpe' (Euskal Fondoaren argazki erakusketa eta dokumentala), Iturri kultur etxean. Erakusketak Ankarako erasoaldi historikoen ondoren kurdu siriarrek bizi duten errealitatea erakusten du.

Zinema

:: Abadiño
ERROTA KULTUR ETXEA

• **Delicioso**
zapatua 29: 19:00

• **Ilargirantz**
domeka 30: 17:00

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **Lunáticos**
barikua 28: 17:00
domeka 30: 17:00

:: Durango
ZUGAZA

• **No somos nada**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 20:00/22:00
domeka 30: 20:00
astelehena 31: 18:00/20:15
martitzena 1: 18:00/20:15
eguztzena 2: 18:00/20:15

• **Belfast**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 18:00/19:00/21:00
domeka 30: 18:00/19:00
astelehena 31: 18:00/20:15
martitzena 1: 18:00/20:15
eguztzena 2: 18:00/20:15

• **La Abuela**
barikua 28: 19:30/22:00
zapatua 29: 18:00/20:00/22:00
domeka 30: 18:00/20:00
astelehena 31: 18:00/20:15
martitzena 1: 18:00/20:15
eguztzena 2: 18:00/20:15

• **La Patrulla Canina: La película**
zapatua 29: 17:00
domeka 30: 17:00

:: Elorrio
ARRIOLA

• **My Beautiful Baghdad**
zapatua 29: 20:00
domeka 30: 20:00
astelehena 31: 20:00

• **Encanto**
domeka 30: 20:00

:: Zornotza
ARETOA


• **El método Williams**
barikua 28: 20:00
domeka 30: 20:00
astelehena 31: 20:15

• **El valle de las linternas**
domeka 30: 17:00



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

“Antzezlanak badu gazitik, eta badu gozotik ere; umoretik ere egin daiteke kritika”

Otsailaren 5ean estreinatuko dute 'eRRe', Durangoko San Agustin kulturgunean; emanaldirako sarrera guztiak salduta daude



egin dugu osorik, baina laguntza ere jaso dugu kanpotik, aholkularitza, lagunena ere bai.

O. A.: Hasieran, intuiziotik lan egin dugu gehienbat. Gero, Edurne Azkarate etorri da eta zuzendari lanak egin ditu. Asko lagundu digu ideiak oholtzara eramaten eta gure gorpuztetan islatzen.

Intuiziotik lan egin dugu gehienbat; Edurne Azkaratek asko lagundu digu ideiak oholtzaratzerakoan eta gorpuzterakoan

San Agustinen estreinatuko duzue.

L. V.: Gogoia dugu jendearen erreakzioa ikusteko, baita euren *feedback* jasotzeko ere, ikusteko zerk funtzionatu duen eta zer aldatu behar dugun. Gu taula gainean eroso egotea ere espero dut.

H. A.: Emanaldiak ahalik eta lekurik gehienetan eskaintzea da helburua. Otsaila eta martxoa beterik ditugu gure agendan, eta hori ikustea itzela da. Nik neuk gogoia eta bertigoia ditut lehenengo emanaldia egiteko. Gu, normalean, ohituta egon gaitezke bertso saio batera joatera, bertan abestera eta amaiturikoan etxera bueltatzera. Hau desberdina da.

Zergaitik 'eRRe'?

H. A.: Berba palindromoa da, aurretik atzera zein atzetik aurrera berdin irakurtzen dena, eta horregaz ere jolastu gura izan dugu.

A. E.: Bitasunagaz jolastu garen modura, simetriagaz ere jolastu gura izan dugu, sotilki bada ere, eszenaratzean egin dugun moduan.

L. V.: Berbak berak ere zentzu hori du. Zorrotzak izaten ahalegindu gara, kritikoak ere bai jendeari gustatu ez arren, eta erretzearen kontzeptuak ere badu zerikusia horregaz.

O. A.: Autokritika handia duen lana ere bada; ez dugu gura alegato huts batean geratzera, azken finean, emanaldi bat delako, eta umoretik ere ahalegindu gara horretan, geure buruari barre eginez.

BERTSOLARITZA • ARITZ MALDONADO

Bertsolaritatik datoz Aner Euzkitze, Haizea Arana, Oihana Arana eta Leire Vargas durangarra. Baina 'eRRe' ikuskizunerako, bestelako diziplina ere hurreratu dira, hala nola antzerkigintzara eta dantzara. Lanku kultur zerbitzuekin elkarlanean sortu dute emanaldia. ANBOTO San Agustinen batu da eurekin, entseatzen zebiltzala. Ordubeteko emanaldia da eurena, eta hamar eszenak osatzen dute. Kritika, autokritika eta umorea batzen dituen emanaldi "sinpatikoa" da eta Durangon estreinatuko dute, datorren astean.

Zer da 'eRRe'?

Leire Vargas: Bertso emanaldi be-rezi bat da. Bertsoa abiapuntua da,

baina ikuskizun hibrido bat da. Komunikatzeko moduan bertsoa presente dago, baina antzerkiagaz, narratibagaz eta dantzagaz elkarlanean agertzen da. Marko lez, dualismoak hartzen ditu, hau da, orokorrean gure pentsatzeko modua bitasunetatik zelan eraikita dagoen. Abiapuntu horregaz, kritika bat egiten dugu gu zeharkatzen gaituzten gaien inguruan, bertso mundukoak zein kanpokoak izan.

Haizea Arana: Esan daiteke bertsoari edo bertso munduari buruzko emanaldi bat dela, gai orokor- goak lantzen diren arren baita ere. Nahiko aipamen eta kritika daude, bertso mundukoak eta honen parte diren pertsonaiei buruzkoak. Gure artean askotan komentatu

ditugun gaiak dira, baina behar- bada kanpora begira ez dira hain komentatuak.

Aner Euzkitze: Ez genuen bertsolaritzari buruzko emanaldi bat edo bertsolaritzaren munduko gaiez berba egiten duen ikuskizun bat egin gura bakarrik. Baina bertso- laritza ardatz garrantzitsua da, horrek batu gaitu eta.

Oihana Arana: Emanaldiaren azpititulua 'Aldarri bat bertsoz' da, zeozergaitik. Emanaldiak hiru ardatz ditu, gu elkartzen gaituzte- nak: bertsolaritza, gaztetasuna eta denok marika edo bollerak garela. Abiapuntu horretatik beste geruza batzuetara heltzen gara gero.

L. V.: Guk bertsoetik berba egiten dugun arren, aurkezten diren zen-

bait gatazketarako ez duzu zertan bertso mundua ezagutu. Azken finean, gatazka horiek bestela ere izaten dira. Modu diferentean ikusiko da emanaldia, bertso mun- dukoa izan edo ez. Antzezlanak badu gazitik, baina badu gozotik ere; umorearen bitartez ere egin daiteke kritika, eta zaporea ez da berbera izango. Gure helburua ez da mundu guztiaren gustuko izatea, horrek kritikoa izatea ezi- nezko egiten du eta.

Diziplina arteko jauzi horiek izan dira erronkarik handiena?

O. A.: Laurok berbari oso lotuta egon izan gara beti. Interesgarria da bestelako erronkak ezartzea gure buruei. Erosotasunetik alden- tzen ahalegindu gara. Testua geuk

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37
Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o

DENA AMETSA DEN IRUDIPENA
Leire Vargas (Elkar)

2^o

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
Eider Rodriguez (Susa)

3^o

ASTERIX ETA GRIFOA
Jean-Yves Ferri & Didier Conrad (Salvat)

4^o

MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

5^o

IZURDEEN AURREKO BIZITZA
Kirmen Uribe (Susa)

Gerediaga Elkarteak Ikerlari Gazteen Saria sortu du

Durangaldeagaz lotura duten euskarazko ikerketak eta dibulgazio lanak sustatu gura ditu egitasmoak; 16-18, 19-24 eta 25-30 urte bitarteko kategoriak egongo dira



Helene Sanchez, Nerea Mujika, Iruri Altzerreka, Liher Larrañaga eta Aingeru Mimentza.

GEREDIAGA • A.M.
Ikerlari Gazteen bekagaz, Gerediaga elkarteak euskarazko ikerketa eta dibulgazio lanak sustatu gura ditu. Ikerketarako gaiak lotura izan behar du Durangaldeagaz, eta eskatzaileak ere bertakoa izan beharko du. "Historia, gizartea, kultura, hizkuntza, ekonomia... Lau formatutan aurkeztu ahal izango da: artikulua, posterra, ikus-entzunezkoa edo podcasta", azaldu dute Gerediaga elkarte-

ko kideek. Apirilaren 6ra arte dago lanak aurkezteko epea. Epaimahaia Iruri Altzerreka zuzenbide ikasleak, Helene Sanchez bioteknologian graduatuak eta Liher Larrañaga ikus-entzunezko komunikazioa ikasitako gazteak osatuko dute. Apirilaren 30ean egingo den Ikerlari Gazteen Topaketan aurkeztuko dituzte saria jasotzen duten lanak. Hiru kategoriatan banatuko dira sariak: 16-18, 19-24 eta 25-30 urte bitartekoak.



Film laburreko fotograma bat.

'Yungay 7020' nazioarteko jaialdietarako hautatua

Raquel Calvo durangarrak zuzendu du dokumentala, Elena Molinagaz batera; nazioarteko zirkuituan sartu da

DOKUMENTALGINTZA • A.M.
Yungay 7020 film labur dokumentalak harrera ona izan du dokumentaletan espezializaturiko zinemaldien nazioarteko zirkuituan. Otsailean, Big Sky Documentary Film Festival jaialdian proiektatuko dute pieza, eta aurretik Cortada saria ere jaso du; Bogotako (Kolonbia) Bogoshorts

programan eta Zinebiren sail ofizialean ere lehiatu da *Yungay 7020*. 1970ean, lur-jausi batek Yungay (Peru) hiria irentsi zuen; tragedia hori du oinarri dokumentalak. Bizirik irten ahal izan zutenek hiria berreraiki zuten inguruetan; han bizi dira orain, mendiaren mehatxupean, baina honek ematen dien urari eskerrak aldi berean.



Otsailean ere ikusgai egongo da.

'Exodoa: hondakinak aterpe' Iturri ikusgai dago


ERAKUSKETA • M.Z.
Andoni Lubaki foto-kazetariaren 40 irudi batzen dituen 'Exodoa: hondakinak aterpe' erakusketa Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai dago. Ankarako erasoaldi historikoen ondoren kurdu-siriarrak bizi duten errealitatea erakusten dute argazkiek; erakusketa Karlos Zurutuzaren dokumental batek osatzen du. Bertako protagonista Fatma da, 22 urteko emakumea eta unibertsitateko ikaslea; turkiarrek bere herria bonbardatu eta gero bere etxetik alde egin behar izan zuen; artearen bitartez errealtatetik ihes egitea lortzen duela kontatzen du dokumentalak. Otsailaren 25era arte egongo da ikusgai erakusketa. Euskal Fondoak, Euskal Toki Erakundeek Lankidetzarako Elkar-teak kudeaturiko proiektua da hau.

Gai librean

Isilaraziak V

Beraien ahotsak ez ditugu inoiz entzun, izenak kasu gutxi batzuetan baino ez ditugu ezagutzen, beraien bizitza ez zaio inori axola, baina beraien gorputzak ezagutzen ditugu. Jantzita eta batez ere biluzik, askotan ikusi ditugu. Artelanik ezagunenetan agertzen dira eta bertako protagonistak badira ere, historian ez dute parterik hartu, beraien izenik ez da agertzen artearen historiako liburuetan.

Pintoreen modeloez ari naiz. Maiz ikusi ditugu baina gutxitan ezagutzen dugu beraien istorioa. Askotan artisten amoranteak ziren (edo hori esan digute, izan ere zalantzan jartzen dut bien arteko harremana –artista eta modeloaren artekoa- adostua izan ote zen ala ez kasu guztietan), beste batzuetan neskameak, emagalduek edota emazteak. Baina aipagarria egiten zait zenbatetan artista izan nahi zuten



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa

emakumeak modelo lanetan aritzen ziren.

Izan ere, XIX. mendera arte oso emakume gutxi izan zuten arte eskola batera sartzeko aukera (debekatua zuten) eta hori lortzen bazuten ezin zituzten

XIX. mendera arte oso emakume gutxi izan zuten arte eskola batera sartzeko aukera

gorputzak naturaletik margotu, hau da, ezin zuten giza modelo bat izan. Beraz, artista izan nahi zuten emakume askorentzat, arte eskolan sartzeko eta beste artista batzuekin harremana izateko modu bakarra modelo lanak egitea zen. Modeloa objektu bat zen pintoreentzat. Pitxer bat margotu ordez emakume baten gorputza marrazten

zuten, lore batzuen orde emakume baten silueta. Objektu simple bat, besterik ez.

Askotan modeloak musa eran erakutsi dizkigute eta kasu hauetan emakume hauen izenak ezagutzen ditugu: Margherita Luti (Raffaellorena), Fanny Cornforth (Rossettirena), Suzanne Valadon (Toulouse-Lautrec edo Renoir-ena), Simonetta Vespucci (Botticellirena) edo Gala (Dalírena). Baina zer da musa bat izatea? Izate hutsagatik beste baten inspirazioa sortzen duena? Edo inspirazio hori laguntza erreala da? Eskuekin edo adimenarekin laguntzea kasu? Izan ere, musa hauen laguntza, kasu askotan, funtsezkoa izan da artistaren fama eta kalitatea bermatzeko.

Beti ezkutuan, beti gutxietsiak, beti objektualizatuak, beti isilaraziak. Emakumeak beti egon dira hor baina ez dira inoiz ikusi; koadroko protagonistak badira ere, ikusezinak dira.

“Banuen gogoa berriro protagonista sentitzeko futbol talde batean”

Peru Nolaskoain jokalaria gipuzkoarra Amorebieta taldeagaz arituko da denboraldia amaitu arte, Athleticek utzita

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

2020ko ekainean, Athleticek utzita Coruña Deportivo jokatzeko zebilela, zelaia urte eta erdiz aldendu zuen orkatilako lesio txar bat izan zuen Peru Nolaskoain Esnalek (Zumaia, 1998). Zorigaiztoko etapa hori ahaztu eta hobe bati ekiteko esperantzaz etorri da Amorebietara.

**Zergaitik aukeratu duzu Amorebieta-
ra etortzea?**

Denbora bat neraman non jokatu pentsatzen. Nire orkatila geroago eta hobeto dago, baina gurago nuen urrun joan ez, orkatilak arazoak emanez gero ez nuen-eta modurik izango Lezamara joateko. Lezamakoekin hartu-emanetan jarraitzen dut, tratamendurako eta abar, eta Zornotzan handik gertu nago. Horrez gainera, taldekide asko ezagunak izatea ere faktore bat izan da. Hainbat jokalaria aurretik ezagutzen nuen eta berriro eurekin egotea, egunean egunekoa eurekin bizitzea, hona etortzeko arrazoiatariko bat izan da.

Zeintzuk dira ezagutzen zenituen jokalaria horiek?

Askok dira. Gaizka Larrazabal, Gorka Guruzeta, Oscar Gil... Bilboko Athleticen eurekin jokatu nuen eta denboraldi handia egin genuen. Egia esanda, Athleticegaz Bigarren B Mailan nengibela, gaur egungo ia taldekide denen kontra jokatuakoa naizela esango nuke. Beraz, elkar ezagutzen dugu apur bat.

Egun batzuk joan dira Amorebietagaz zabalizanez. Erabaki zuzena izan dela sentitzen duzu?

Bai, banuen gogoa berriro ere protagonista sentitzeko futbol talde batean. Proiektu polit baten bila nengibela, eta uste dut Amorebietakoa badela hazten lagunduko didan horietarikoa. Nire bertsiorik onena berreskuratu eta berriro jokatzeko kapaz naizela sentitu gura dut. Jakina, badut datorren urtean Lezamara bueltatu eta han geratzeko ilusioa ere.

Zelakoak ari dira izaten zure lehenengo egunak taldekideekin?

Oso giro ona ikusi dut eta talde bat hortik eraikitzen da. Bigarren Mailan, gatazka da partidu bat irabaztea. Argi dago giro onagaz bakarrik ez direla partiduak irabazten, baina horixe da abiapuntua.

Jakina, badut datorren urtean Lezamara bueltatu eta han geratzeko ilusioa ere

Zer eskatzen dizu Iñigo Velez de Mendizabal entrenatzaileak?

Batez ere lana eta konpromisoa. Gainera, badut esperientzia kategorian honetan. Badakit partiduak irabaztea oso gatazka dela eta defentsako lan on bat dela garaipenerako bidea. Mentalizazio horretan lagundu gura diot taldeari. Taldeak ondo erantzuten badu, nik ere nire bertsiorik onena eman ahalko dudala uste dut. Beti ere taldearen zerbitzura. Taldea nire aurretik dago, hori argi daukat.



Joan zen asteburuan, apur batean jokatzeko aukera izan zenuen Molinon zelaian, Sporting Gijonon kontra. Zelan sentitu zinen?

Ondo ikusi nuen neure burua. Partiduari dagokionez, triste amaitu genuen, 2-1 galdutik guren eta. Partidua kontrolpean geneukala uste dut eta akats txiki batek dena aldatu zuen. Amorruta eman zigun partidu horrek eskutik ihes egin izanak.

Zelai erdian ala atzealdean sentitzen zara erosoan jokatzeko?

Askotan egin didate galdera hori. Zelai erdian erosoago sentitzen naiz eta postu horretan gehiago eman dezakedala uste dut, baina atzealdeko bosteko lerroa ere ezin hobeto moldatu naiteke. Taldeari

laguntzeko bada, edozein postutan ere gustura arituko naiz. Batzuetan atzean jokatzeko egokituko zait, beste batzuetan zelai erdian, eta egongo dira egunak aulkian egotea

Batzuetan min gehiago ematen du buruak orkatilak baino, eta hori orkatilak min handia eman didala!

egokituko zaidana ere. Denerako prest nago.

Orkatilak ahalbidetzen dizu partidu osoa jokatzeko?

Bai, orkatila baino gehiago erritmoa eta hauspoa berreskuratu

behar ditut. Ez dizut esango orkatila guztiz indarberrituta dagoenik, baina badakit ehuneko ehunetan sekula ez naizena egongo eta hori kontuan hartuta jokatzeko ohitu behar dut. Hori buruan, partidu osoa jokatzeko moduan nago.

Lesio luze hori garrantzitsua bane mentalizazio handia eskatu dizu?

Bai, batzuetan min gehiago ematen du buruak orkatilak baino, eta hori orkatilak min handia eman didala! Burua zentratuta edukitzea eta lesioa lasai hartzea garrantzitsua da. Bakoitzak bilatu behar du zerk laguntzen dion egunerokotasunean burua orekatuta mantentzen. Nik hori bilatu eta aurkitu dudala uste dut eta prozesu horrek asko lagundu dit orkatila hobetzen.

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Arrieta
podologia

Arrieta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Askatu mototsak
DANTZA TAILERRA (gorputz adierazpena)

INALVIS ECHEVARRÍA PANDO (Cuba)

OTSAILAK 4

16:00-17:00 DBH
17:00-18:00 LH3-LH4
18:00-19:00 LH5-LH6

ALDEZ AURRETIK IZENA EMAN BEHAR DA

94 681 27 26 | bilotekakoekintzak@arrieta.eus | 688 86 37 36

Arrieta

Kulturalak urritik datorren lehorteari amaiera ematea du helburu zapatuan

Ligako azken bederatzi jardunaldietan, Durangoko taldeak ez du partidu bakar bat ere irabazi



Denboraldi honetako partidu baten irudia. **LUIS ITURRIOZ**

FUTBOL • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturala emaitza bolarik eskasean murgilduta dago. Urri-
tik hona jokatu dituzten bederatzi
partiduetatik bat ere irabazi ez, eta
sailkapenean beherantz egin dute.
Beraz, zapatu arratsaldean Tabiran
Urduizzen kontra jokatu duten
partiduko helburua argia da: garai-
penaren bidera bueltatzea.

Kulturalaren azken garaipena
urriaren 20koa da. Orduan 2-0
menderatu zuten Deusto. Hurren-
go lau jardunaldietan, berdindu
egin zuten eta denetan banakoa
izan zen emaitza. Harrezkero joka-
turiko bost partiduetatik lau galdu
dituzte.

Hala ere, goiko postuak behe-
koak baino dezente hurrago di-
tuzte oraindino. Bederatzigarren
daude eta bosgarren postua, igoe-

**Sailkapeneko goiko
postuak behekoak baino
dezente gertuago dituzte
oraindino**

rako play off-etarako azkena, lau
puntura dute. Denboraldi hasieran
kateaturiko garaipen eta emaitza
onetan dago horren arrazoia.

Egoera ikuspegi zabalago bate-
gaz aztertuta, ez da ahaztu behar

Kulturalak iaz gorriak ikusi zituela
mailari eusteko. Horixe uste du
Jon Gonzalez entrenatzaileak ere.
"Denboraldi hasieran esan baligute
urtarrilean gauden tokian egongo
ginela sinatuko genuen", dio.

Orokorrean, ez du uste Kultu-
rala aurkaria baino gutxiago izan
denik orain arte, eta "unean une-
ko akatsen" ondorioz etorri dira
porrotak. "Badakigu konponbidea
gugan dagoena, eta autokritika
eginez eta umiltasunez, egoerari
buelta emateko lanean gabiltza",
azaldu du.

Asteburuan, garaipen batek
goiko postuetatik gertu ipiniko
lituzke berriro.

2023ko Tourreko etapa eskualdeko hainbat herritatik igaroko da

2023ko lehenengo hiru etapak euskal lurretatik izango dira eta eguaztenean aurkeztu zituzten. Zornotzan hasiko dena lurretatik eta Berriztik igaroko da, Trabakura bidean

TXIRRINDULARITZA • J.D.

2023ko Frantziako Tourreko lehe-
nengo hiru etapak Euskal Herrian
izango dira osorik eta hiruretako
ibilbideak eguaztenean aurkeztu
zituzten Gasteizko Europa Jaure-
gian egindako ekitaldian.

Hirugarren etapa uztailearen
3an Zornotzan hasi eta Ipar Euskal
Herrian amaituko da. Hasierako
kilometroak gure eskualdean izan-
go dira. N-634 errepidetik Iurreta,
Abadiño eta Berriz igaro eta gero,
txirrindulariek Trabakura menda-
tea igoko dute, kostaldera bidean.

Eguazteneko ekitaldian, agin-
tariek ez ezik txirrindulari ohiek
ere parte hartu zuten eta tartean
eskualdeko bat egon zen: Agur-
tzane Elorriaga Bizkaia-Durango
taldeko zuzendaria. Izan ere,
2001eko emakumeen Tourrak
Bilbotik irten zuen eta erlojupeko
lasterketa hartan Agurtzane Elo-
rriaga izan zen lehiaketari ekin
zion lehenengo txirrindularia.
Orduko argazkia etxean ondo
gordeta duela gogoratu zuen. Txo-
min Perurenak eta Joseba Belokik
ere berba egin zuten.



Christian Prudhomme, Frantziako Tourreko zuzendaria, Gasteizen egindako aurkezpenean.

Jokaldia

Diosala

Bizikletan errepidera edo mendira
ateratzen garenon artean, ezinbeste-
ko keinua dela deritzot. Idatzi gabeko
araua dela esan ohi da; begirunea
eta era berean, komunitate bateko
partaide izatearen agurra. Urteetako
ohitura baina azken boladan galtzen
ari dena. Neroni gertatu izan zait. Bizi-
kletan kilometro batzuk egitera erre-
pidera atera, profesional batekin hiru
aldiz gurutzatu, norberak diosala egin
aldi oro, eta, trukean, erantzunik
jaso ez. Amorrua eta etsipena sentitu
nituen. Oraindik ez dakit profesio-
nal baten burutik zer pasatzen den
zikloturista bat ez agurtzeko; berak
jakingo du zer egiten duen. Diosala
bai, errepideko denboraldi berriari
egingo diot. Valentzian eta Mallorcan
egin dituzte ziklistek aurreneko kilo-



Alfontso Arroio
Monasterio
Kirol kazetaria

**"Nago ni, garaiotan
beste lehentasun batzuk
badaudela, osasungintzan
eta hezkuntzan kasu"**

metroak, nagia kentzen hasteko lehen
bi lasterketetan. Gustura egingo diet
diosala Euskal Herriko Itzuliari eta
Emakumeen Itzuliari ere. Iaz gizonez-
koen lasterketan, sasoi osoko unerik
kitzikagarrienak bizi zirela uste dut,
munduko onenak mokoka. Tourreko
lehen asteko saioekin batera, 2021eko
gogoangarriena. Aurten, erdiarekin
konformatuko nintzateke, baina ez
dago argi Pogaçarrek parte hartuko
duen ala ez. Denboraldiko azken za-
tian, Espainiako Vuelta EAeko hiru
herrialdeetara iritsiko da; agintariak

bultzatutako ekitaldi erraldoien alde-
ko apustua. Auzokideek gustua hartu
diote Hego Euskal Herriko lau herrial-
deetara etortzeari; aukeran, maizta-
sun larregirekin. Baina erraldoien
artearen erraldoiena 2023an helduko
da. Frantziako Tourraren hasiera izan-
go da Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta
Lapurdin. Aginte makila hartuta du-
tenen aspaldiko apeta egia bihurtuko
da. Hamabi milioi euro xahutuko dira
hiru eguneko ekitaldi batean. Jendea
trumilka hurbilduko da, telebista era-
kusleihu paregabea izango omen da
gure herriaren zati bat munduratzeko
baina barkaidazue, nago ni, garaiotan
beste lehentasun batzuk badaudela,
osasungintza eta hezkuntza kasu. Zi-
klismoan, berriz, gustura egingo nie-
ke diosal herrietako elkarteek garai
batean antolatutako lasterketei.

DURANGALDE

Mañaria Saibigainetik begira

Saibigain mendiko tontorretik ondo baino hobeto ikusten da Durangaldea. Mañariko ingurua, bereziki. Eguraldi onagaz ikuspegi paregabea dago, alde batera zein bestera begiratuta. Ikuspuntua itsasoraino zabaltzen da, batez ere eguna argi badago.



KO TXOKOAK ?

Alluitzetik sortaldera begira

Eguzkia zeruertzetik irteten ikustea baino bizipen ederragorik! Zer esanik ez Alluitz tontorretik bada, ia batere lainorik bako egun batean, Udalatx eta Anboto mendiak lagun dituzula eguzkiaren alde banatan. Horretarako, baina, goiz ibili behar, eguzkia ez dago-eta inoren zain bere eguneroko osteratxoari ekiteko.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com


Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

IURRETA

ERAIKUNTZA BERRIA: Iurretako udalaren ondoan. 2 eta 3 logelako etxebizitzak eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
230.000 €tik aurrera

ZALDIBAR

BILBAO ETORBIDEA: Etxebizitza altua. 3 logela, komun, sukaldea eta egongela. Igogailua. Eguzkitsua. Hegoaldea.
118.000 € C.E.E=F


DURANGO

LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. Garajea. Hegoaldea.
258.000 € C.E.E=F

DURANGO

Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Aparkaleku pribatua.
199.500 € C.E.E=G

DURANGO

ALDE ZAHARRA: 2 logela (lehen 3) komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara. GUZTIZ BERRIZTATUA. Bizitzera sartzeko moduan.
145.000 € C.E.E= E negoziagarria

DURANGO

Erdi berria. Etxebizitza altua. 2 eta 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Terraza handia. Garaje itxia aukeran.
250.200€ tik aurrera C.E.E= E

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Alluitz kalea. 3 logela, 2 komun eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garaje itxia.

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komun, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komun, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komun eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komun, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIRUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komun eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komun eta aldagela. Oso egokia.


www.inmoduranguesado.com

IURRETA

70 m²
3 logela
BIDEBARRIETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komun. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Erdialdetik gertu. ITE-a 2018.urtean pasatutakoa.
159.000 € C.E.E: E negoziagarria

DURANGO

88 m²
SANTA SUSANA: (2.000. urtea). Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta 2 komun. Igogailua. Altua. Etxe osoak kanpora ematen du (lpar-hegoaldea) Argitsua. Herrigunetik gertu. 13,5 m²-ko garajea eta 55, 68 m²-ko ganbara.
275.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO

83 m²
3 logela
ANDRA MARI: Atikoa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. Igogailua. Altua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hegoaldea). Herri erdian kokatua. Ezin hobea (10 urteko antzinatasuna). Zoru erradiatzaileko berokuntza.
265.000 € C.E.E: Bidean

IURRETA

52,69 m²
DANTZARI: Egongela, sukalde jantzia. 3 logela, despentsa eta komun. Igogailua. Altua. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Ikuspegi ona. Herrigunetik oso gertu, zerbitzu gunez inguratuta. ITE oraintsu pasatutakoa.
153.000 € C.E.E: E

MATIENA

65 m²
3 logela
TRAÑABARREN: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (Mendebaldea). ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m²-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.
175.000 € C.E.E: E negoziagarria

DURANGO

118 m²
4 logela
MONTEBIDEA: : Egongela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (lpar-hegoaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Garajea 2 kotxerentzako eta 22,46m²-ko ganbara.
349.000 € C.E.E:E

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. Bulegoa. **220.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komun. **112.000 € / E.E.Z= E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komun. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**

Goienkalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € / E.E.Z= G**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

IURRETA

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

ZALDIBAR

MIREN MAORTUA: 3 pisuko etxea. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia eta txokoa. Garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**

ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

BERRIAK - ABADIÑO

ALFREDO BAESCHLIN: Etxebizitza eraikitzeke lurzorua. **180.000 €**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 28 · 09:00-09:00	09:00-22:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 31 · 09:00-09:00
09:00-22:00	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 29 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 1 · 09:00-09:00
09:00-13:30	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	EGUAZTENA, 2 · 09:00-09:00
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	09:00-22:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 3 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
09:00-22:00	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 30 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Elene Loroño Bizkarrak 12 urte egiten ditu. Zorionak etxekoan partez. Jarraitu horren jatorria izaten. Asko maite zaitugu.



Markelek eta **Jonek** 9 urte egingo dabez aste honetan. Gure urtarreko uzta baduela aurrera... Zorionak, primos!



Elenek 8 urte egin zituen eta **Oinatzek** 10 urte egingo ditu. Zorionak, bikote! Segi horren alai. Mosu potolo bana zuen aitaren eta amaren partez.



Endika, zure 10. urtebetetzean. Egun polita eta alaia izan zure aita Lander, ama Ana, arreba Irati, Luzia eta Eder lehegusuak, aitteitte Karlos eta Luis, amama Enkarna eta beste senideen partez.

Eguraldia

ZAPATUA ⬇️ 12° / 2° ☀️

DOMEKA ⬇️ 11° / 1° ☁️

ASTELEHENA ⬇️ 9° / 3° ☁️

MARTITZENA ⬇️ 9° / 4° ☁️

EGUAZTENA ⬇️ 13° / 3° ☁️

EGUENA ⬇️ 14° / 4° ☁️

GAER



DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriz, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

“1998an sei milioi pezetatako saria zuten 20 kupoi saldu nituen Durangon”

Jose Mari Mardarasek ONCEko kupoiak saltzen ditu Durangon, Iurretan eta Abadiñon



Jose Mari Mardaras Urriaga
ONCEko langilea
DURANGO (1959)

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA
Jose Mari Mardarasek 32 urte daratza ONCEko kupoiak saltzen Durangaldean. Umoro oneko ibiltzen da bezeroak atenditzen. Hiru hamarkadatan salmenta moduak asko aldatu direla dio, eta teknologia berrietara moldatzea beharrezkoa dela uste du. Interneteko kupoiak salmenta eta aurrez aurrekoa uztartzen dituzte. Durangon sari potoloa emandakoa da.

Noiz hasi zinen ONCEko kupoiak saltzen?

1992an hasi nintzen. Sasoi hartan, ONCEko langileok kalean

saltzen genuen. Ez zegoen ez internet ezta makinarik ere.

Salmenta moduak asko aldatu dira urte hauetan?

Kupoiekin kalean jarraitzen dugu, eta, beraz, oraindino presentzia hori mantendu egiten dugu. Baina, apurka-apurka, teknologia aurreratu egin dute eta internetez salmenta dagoez, mugikorretik erosi daiteke. Merkatuaren beharrianetara moldatu beharra dugu. Arlo guztietan egon behar dugu. Hala ere, ONCEren helburua beti izan da gizarte arloan laguntzea, eta gure lana kalean egotea da.

ONCEren helburua beti izan da gizarte arloan laguntzea, eta gure lana kalean egotea da

Durangaldeko zein herritan aritzen zara kupoiak saltzen?

Diskapazitatea duen arren, mugitu egin naiteke, leku finko batean egon beharrean. Bezeroak topatzen eta atenditzen ibiltzen naiz. Durangora, Iurretara eta Abadiñora joaten naiz, lanaren arabera.

Jende askogaz duzu tratua. Pazientzia handia behar da saltzailea izateko?

Gustatzen ez zaizkidan gauza asko entzuten ditut, baina tira. Badakizu lan hau zelakoa den. Denei entzun eta denen iritzia errespetatu behar da.

Erosleek zein lehentasun izaten dute zenbakiak aukeratzeko?

Makinan zuk gura duzun zenbakia aukeratu dezakezu. Hala ere, amaiera aukeratzeko da betiko ohitura. Denerik dago. Batzuek datorrena edo ematen diezuna hartzen dute, edozein zenbaki izanda ere. Beste batzuek data zehatzekin jotzen dute, ‘Mi día’ deitzen den lehiaketan, esate baterako. Oso aukera zabala dago.

Eskerrik asko jende guztiari euren konfiantzagaitik. Jarraitu dezatela erosten, egunen batean zeozer tokatu ahal zaie eta

Zeuk ere jotzen duzu?

Nire produktua denez, neuk ere jotzen dut.

Irabazi duzu inoiz ezer?

Ez, ez dut inoiz ezer irabazi, baina saria eman bai.

Zein sari eman duzu?

1998an, sari nagusia eman nuen Durangon. Sei milioi pezetatako saria zuten 20 kupoi saldu nituen. Poztasun handia izan zen.

Zer esan zizuten saridunek? Batzuk ezagutuko zenituen.

Eskerrak eman zizkidaten. Irabazten duenaren zortea da gakoa. Guk saltzen dugunean gure lana egiten dugu.

Zuri tokatuz gero, zertan gastatuko zenuke dirua?

Neuri ere tokatu ahal zait! Ez daukat bizio handirik eta ez zait gustatzen oporretan joatea. Zeozertan inbertituko nuke.

Zer esango zenieke zure bezeroei?

Eskerrik asko jende guztiari euren konfiantzagaitik. Jarraitu dezatela erosten, egunen batean zeozer tokatu ahal zaie eta. Animo eta aurrera.

Lauhortza

Mertxe Mugika
Balanzategi
AEK



Hitzekin, ekin, elkarrekin

Auzia ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Kontua egitea da. Egiten duguna gara. Izatea egitea da.

Lorea Agirreren hitzak dira, euskaldunok ahalduztzeko deia eginez. Korrika, Euskaldia edo beste ekimen batzuk tarteko, ahalduztzen aritu gara azken urteetan. Baina, euskararen aldeko dinamika hedatzen eta indartzen ari zirela, pandemia agertu zen, eta hondamendi soziala eragiteaz gain, euskararen biziberritze-dinamika gogor kolpatu zuen eta kolpatzen ari da.

Baina, 2022. urteak aukera bikaina eskainiko digu berriro ere euskarak galdu dituen espazioak berreskuratzeko. 2022. urtean Korrikaren eta Euskaraldiaren edizio berriak ezagutuko ditugu: martxoaren 31tik apirilaren 10era, 22. Korrikak zeharkatuko du Euskal Herria, eta azaroaren 18tik abenduaren 2ra ahobizi eta belarriprest dinamika zipriztinduko gaitu. Zalantza barik, 2022a euskararen urtea izango da, hitzekin eta hitzez ekiteko garaia.

Lehen mugarra 22. Korrika izango dugu, apirilaren 1ean goizaldeko ordu txikitik Zornotzatik sartuko da Durangaldera, eta eguna argitu ahala, Mallabitik irtengo da. Sei ordutan ibiliko da lekukoa eskuz esku, bidean gauza asko topatuko ditu: irriak, emozioak, negarrak, barreak, saltoak, aniztasuna; eta batez ere, euskaraz bizi gura duen eskualdea, 22. tantora heldu gura duen eskualdea, ezinbestekoa ikusten duena partida hau irabaztea. Lagunok, ekiteko ordua da, orain irabazi behar da norgehiagoka. 22. Korrika batzeko unea da, eta batuta ekingo diogu Durangaldean. Ekin elkarrekin, ekin Korrikari!

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com